1. Ni, urtero, nire errira joaten nintzan.—2. Mikel ta Begoña zure aitaren etxera etorten ziran astero.—3. Menditik etxera itzultzen giñan gure lagunakaz.—4. Zelakoak izaten ziran emen egunak eta gabak? Egunak beroak izaten ziran, baña gabak oso otzak.—5. Ni ez nintzan igoten mendira nire semeagaz.—6. Iñaki, egunero jausten zan kalean.—7. Gure seme-alabak egunero joaten ziran ikastolara.—8. Gu, barriz, emen gagoz gure gurasoakaz.—9. Gau ta egunak guztiz ederrak izaten ziran gure errian.—10. Ni egunez itzultzen nintzan nire etxera; zu ostera gabaz etorten ziñan.—11. Mendian, baso erdian, etxe txiki zuri bat dago.—12. Bidea luzea da, baña oso ederra.—13. Ate aurrean Mikel dago. Bere txakurra landan dago, etxe ondoan.—14. Mikel an bizi da.—15. Nun bizi zan Mikel? Mendian, bere aitaren baserrian.—16. Joseba ibaian jausi zan. Ni ez nintzan ibaian jausi.—17. Zuek ez ziñien ibaira itzuli zuen alabakaz.—18. Zer jazoko da biar itxasoan? Asko itoko dira.—19. Atzo gabeen baserri barrira joan giñan ta gero gure etxerantz itzuli giñan.—20. Mutil guztiak euren etxerantz joan ziran.—21. Orain, barriz, ondartzara joango naz.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | | | |
|-------|--------------|-------|--------|-----|-------|----------|------|---------|
| ni | egunero | nire | etxe | eta | n | joan | ten | nintzan |
| zu | goizero | zure | erri | | an | etor(ri) | tzen | ziñan |
| bera | arratsaldero | bere | mendi | | tik | itzul(i) | | zan |
| Iñaki | astero | gure | itxaso | | ra | ego(n) | | giñan |
| gu | urtero | zuen | ibai | | raño | igo(n) | | ziñien |
| zuek | | euren | bide | | rantz | ibil(li) | | ziran |
| eurek | | | zubi | | | jatsi | | |

Ejemplo: Ni, urtero, nire errira joaten nintzan. _____

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera :

1. *En el pueblo subíamos al monte todos los días.*—2. *Todas las noches volvía Juanito de la escuela con sus compañeros.*—3. *Cada año ibais a la playa del pueblo.*—4. *Me levantaba por la mañana y bajaba al río con mi amigo Miguel.*—5. *Junto al mar hay hermosos pueblos.*—6. *Llegaban de día a casa todos los días.*

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes guipuzcoanas.

REPASO

a) Traducir al euskera :

1. *¿Dónde te perdiste? Me perdí allí.*—2. *¿Cuántos fuisteis? Fuimos nueve: seis muchachos y tres muchachas.*—3. *¿Fue buen día? Sí, muy hermoso, ni calor ni frío.*—4. *¿No os levantasteis? No, no nos levantamos.*—5. *¿Cuántos vinieron? Treinta y dos.*—6. *¿Anduviste mucho? Sí señor, mañana y tarde.*—7. *¿Qué pasó ayer a la mañana? Se ahogó un niño pequeño en el río.*—8. *¿A dónde fuiste ayer? Fui hacia los bosques del monte.*—9. *Fuimos desde la iglesia hasta el monte.*—10. *Ayer a la noche hacía (era) frío, hoy hace (es) mucho calor.*—11. *Se levantó ayer.*—12. *¿Cómo entraste en la iglesia? Por la puerta.*—13. *Ayer también fue hermoso (estuvo).*—14. *¿Dónde están los hijos de Begoña? Están en la playa, junto al mar.*—5. *¿Cuántos muchachos fueron al monte ayer por la mañana? Ochenta chicas y cuarenta chicos; fueron ciento veinte muchachos.*—16. *Sesenta o sesenta y cinco hombres vinieron a este pueblo ayer por la mañana.*—17. *¿Cómo eran los nietos de Antonio? Eran buenos niños y también hermosos.*—18. *¿Dónde está tu amigo Luis? Luis no está aquí. No ha venido a la playa.*

b) Traducir al castellano :

1. *Gaur goizean ondartzan egon gara gure adiskideakaz.*—2. *Iñaki ta Mikel menditik etorri ziran.*—3. *Atzo arratsaldean gure erriko gaztelu zarrera igon zifien.*—4. *Nire anai txikia ibaian ito zan.*—5. *Zure aita ez zan egon Begoña'ren etxean, nire base-rriko larran baño.*—6. *Arantza goizean jagi zan eta eleizako bidetik mendira igon zan.*

— Vocabulario —

| |
|-------------------------------------|
| egoan (zegon) estaba (él) |
| egozan (zeuden) estaban |
| ebillen (zebillen) anda- ba (él) |
| ebiltzan (zebiltzan) an- daban |
| etorren (zetorren) ve- nía (él) |
| etozan (zetozten) ve- nían |
| joian (zijoan) iba (él) |
| joiazan (zijoazten) iban |
| inguru alredecor |
| itxas-ontzi barco |
| lapur ladrón |

OARRAK - Observaciones

● También en el tiempo pasado (el pretérito imperfecto castellano) hay en euskera una forma sintética para unos pocos verbos. En este vocabulario incluimos algunas de las formas más usadas.

nire adiskidea ondartzan egoan mi
amigo estaba en la playa

bidetik etozan venían por el camino

● Es muy frecuente en euskera suprimir el auxiliar del verbo cuando éste se puede deducir por el contexto y sobre todo si en la misma frase aparecen dos verbos regidos por el mismo auxiliar.

goizean jagi eta etxetik urten nintzan me levanté a la mañana y salí
de casa

en lugar de decir:

goizean jagi nintzan eta etxetik urten nintzan

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. Pernando eta bere emaztea mendian egozan.—2. Inguru aretatik jaun bat ebillen.—3. Begoña ondartzan egoan bere lagunak.—4. Erritik ebiltzan atzo arratsaldean gure seme-alabak.—5. Baserritik errira etorren Arantza, eta ibaira jausi zan.—6. Beragaz joian bidetik.—7. Itxas-ontzi batean joiazan mutil orreik, eta itxasoan ito ziran.—8. Nigaz etorren Iñaki erriko bidetik.—9. Euren etxean egozan atzo arratsaldean.—10. Nire aita etxe aurrean egoan, baña Anton ez egoan beragaz; ibaian ebillen.—11. Begoña'ren lengusuak euren ortuan ebiltzan ta ara joan nintzan.—12. Zer jazo zan zure errian? Ezebez.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | |
|----------|-------|------|----|----------|---------|--------|
| inguru | on | eta | n | egoan | Mikel | au |
| kale | or(r) | eita | ra | egozan | Begoña | ori |
| baso | a(r) | tik | | ebillen | mutil | a |
| erri | | | | ebiltzan | neska | orreik |
| etxe | | | | etorren | gizon | oneik |
| ondartza | | | | etozan | emakume | areik |
| | | | | joian | | |
| | | | | joiazan | | |

Ejemplo: Kale onetan egozan mutil orreik.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. Venían por el camino hacia nuestra casa los amigos de Ignacio.—2. Ayer andaba por el pueblo; ahora no está allí.—3. Los ladrones andaban por aquellos alrededores.—4. Mi amigo estaba en su casa ayer por la tarde.—5. María estaba con ella en casa de mi madre.—6. Ignacio no venía con sus amigos.

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. Yo iba (solía ir) todos los años a mi pueblo.—2. Miguel y Begoña venían todas las semanas a casa de tu padre.—3. Volvíamos del monte a casa con nuestros amigos.—4. ¿Cómo solían ser aquí los días y las noches? Los días solían ser calurosos, pero las noches muy frías.—5. Yo no subía al monte con mi hijo.—6. Ignacio, se caía todos los días en la calle.—7. Nuestros hijos iban todos los días a la escuela.—8. Aquí estamos de nuevo con nuestros padres.—9. Las noches y los días eran hermosísimos (del todo hermosos) en nuestro pueblo.—10. Yo volvía de día a mi casa; tú, sin embargo, venías de noche.—11. En el monte, en medio del bosque, hay una casita blanca.—12. El camino es largo pero muy hermoso.—13. Delante de la puerta está Miguel. Su perro está en la campa, junto a la casa.—14. Miguel vive allí.—15. ¿Dónde vivía Miguel? En el monte, en el caserío de su padre.—16. José se cayó en el río. Yo no me caí en el río.—17. Vosotros no volvisteis al río con vuestras hijas.—18. ¿Qué sucederá mañana en el mar? Se ahogarán muchos.—19. Ayer por la noche fuimos al caserío nuevo y después volvimos hacia nuestra casa.—20. Todos los muchachos fueron hacia sus casas.—21. Ahora, de nuevo, iré a la playa.

b) Traducir al castellano:

1. Errian, mendira igoten giñan egunero.—2. Ikastolatik itzul-ten zan Iñaki gabero bere lagunakaz.—3. Urtero joaten ziñien erroko ondartzara.—4. Goizean jagi ta ibaira jatsitzen nintzan nire adiskide Mikel'egaz.—5. Itxas-ondoan erri ederrak dagoz.—6. Egunez etxera elduten ziran egunero.

IZTEGIA

— Vocabulario —

zeru cielo
aize (aide) aire
laster (laister) pronto
garbi limpio
urdin azul

23'gn. IKASKAIA

OARRAK - Observaciones

● Con el sufijo «ko», o «go» añadido al infinitivo y el pasado del verbo «izan» se forma el tiempo en castellano se llama «potencial compuesto»:

Egongo nintzan *Hubiera o habría estado (yo)*
ibilliko ziñan *Hubieras o habrías andado*
sartuko giñan *hubiéramos o habríamos entrado*
galduko ziran *se hubieran o habrían perdido*

● También se puede traducir por «estaría», «andaría», etc., pero siempre que no tenga sentido de condicional.

Ni emen ondo egongo nintzan *Yo aquí estaría bien*

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. Ona sartuko giñan.—2. Laster elduko giñan zure baserrira.—3. Egunero mendira joango ziñan zure adiskideakaz.—4. Bai, asko poztuko nintzan.—5. Eta, nora joango ziñien? Ibaira joango giñan.—6. Arratsaldean zerua urdifiñan zan.—7. Arratsalde urdin a oso beroa zan. Zerua garbia zan, ta aizea biguna.—8. Zu ez ziñan eldu ona beragaz.—9. Bera ez zan itxasoan itoko.—10. Baserrietan idiak eta beiak dagoz.—11. Etxean be mai bat dago eta mai azpian Mikel'en katua dago.—12. Nun dago Mikel'en katua? Etxean dago, mai azpian.—13. Ni ez nago baserrian, erroko kalean baño.—14. Nun nago orain? Zu kalean zagoz.—15. Eta zu nun bizi zara? Ni ibai ondoan bizi naz, baserri aundi batean.—16. Itxaso bazterrean landa eder bat dago.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | |
|-------|------|--------|----|---------|
| etxe | an | jazo | ko | nintzan |
| erri | tik | ito | go | ziñan |
| ibai | ra | jagi | | zan |
| mendi | raño | jausi | | giñan |
| atzo | asko | itzuli | | ziñien |
| egun | ero | joan | | ziran |
| arte | | poztu | | |

Ejemplo: Ibaian itoko ziran.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. *Hubiera venido a casa todas las semanas.*—2. *Los niños se hubieran ahogado en el río.*—3. *Nos hubiéramos caído por el camino.*—4. *Hubiera vuelto pronto a casa todos los días.*—5. *Os hubierais alegrado mucho.*—6. *No hubiera sucedido eso.*

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. *Fernando y su mujer estaban en el monte.*—2. *Andaba por aquellos alrededores un hombre.*—3. *Begoña estaba en la playa con sus amigos.*—4. *Nuestros hijos andaban por el pueblo ayer por la tarde.*—5. *Venía Arantza del caserío al pueblo y se cayó al río.*—6. *Iba con él por el camino.*—7. *Esos muchachos iban en un barco y se ahogaron en el mar.*—8. *Ignacio venía conmigo por el camino del pueblo.*—9. *Estaban en su casa ayer por la tarde.*—10. *Mi padre estaba delante de la casa pero Antón no estaba con él; andaba en el río.*—11. *Los primos de Begoña estaban en su huerta y allí fui.*—12. *¿Qué pasó en tu pueblo? Nada.*

b) Traducir al castellano:

1. *Iñaki'ren adiskideak gure etxerantz etozan bidetik.*—2. *Atzo erritik ebillen; orain ez dago an.*—3. *Lapurrak inguru areitatik ebiltzan.*—4. *Nire adiskidea bere etxean egoan atzo arratsaldean.*—5. *Beragaz egoan Miren, nive amaren etxean.*—6. *Iñaki ez etorren bere adiskideakaz.*

| | |
|------------------|----------------------------------|
| agertu | <i>aparecer</i> |
| gogaitu | <i>aburrirse</i> |
| nekatu | <i>cansarse</i> |
| geratu | <i>quedarse</i> |
| ezkutatu | <i>esconderse</i> |
| amaik txo | <i>muchísimo</i> |
| biotz | <i>corazón</i> |
| begiko | <i>simpático</i> |
| gitxi | <i>(gutxi) poco</i> |
| igande | <i>(domeka) do- mingo</i> |
| aldiz | <i>veces</i> |
| astelen | <i>lunes</i> |
| astearte | <i>(martitzen) martes</i> |
| eguzten | <i>(asteazken) miércoles</i> |
| eguen | <i>(ostegun) jueves</i> |
| bariku | <i>(ostiral) viernes</i> |
| larunbata | <i>(zapatu) sá- bado</i> |

OARRAK - Observaciones

● En los verbos terminados en «**tu**», como «**agertu, gogaitu**», etc., al añadir el sufijo «**ten**» pierden la última sílaba, generalmente, y añaden «**tzen**». Así:

agertzen, gogaitzen, nekatzen, etc.

● Cuando se quiere expresar el día o la hora en que una acción tiene lugar se dice «en lunes», «en las cuatro», etc., en lugar de decir como en castellano «el lunes a las cuatro», etc.

Atzo goizean agertu da *ha aparecido ayer por la mañana*

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. Nun agertu da ori? Anton'en etxe ondoan.—2. Zelakoa da mutil ori? Bere biotza ez da txarra, baña mutil okerra da.—3. Eta bere semea? Semea oso begikoa da.—4. Beragaz joan nintzan igandean eta ondo ibilli nintzan.—5. Nekatu zara? Ez, orain arte ez naz nekatu.—6. Asko ibilli ziñien atzo? Goizean bai, baña arratsaldean oso gitxi.—7. Noiz galdu zan zuen txakurra? Atzo goizean, baña gaur agertu da.—8. Nogaz ibilli ziñan atzo? Ander'en semeakaz.—9. Nun ezkutatu ziñan atzo? Izekoagaz egon nintzan.—10. Gaur goizean nire semeakaz ibilli naz.—11. Asko ibilli giñan, baña ez nintzan nekatu. Emen geratuko dira gugaz.—12. Gero, zer jazo zan? Gaba eldu zan eta an galdu giñan. Ni ez nintzan galduko: amaik txo aldiz egon naz an.—13. Aste bat zazpi egun dira: astelen, astearte, eguzten, eguen, bariku, larunbata, igande.—14. Gaur eguena da? Ez, atzo izan zan eguena, gaur barikua da, ta biar larunbata izango da. Gero igandea.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | |
|-------|------|------------|------|---------|-------------|----|
| ni | gaz | ager(tu) | ten | nintzan | astelen(e) | an |
| zu | kaz | gogai(tu) | tzen | ziñan | astearte | |
| bera | emen | neka(tu) | ko | zan | eguztene | |
| Mikel | or | gera(tu) | go | giñan | egune | |
| gu | an | ezkuta(tu) | | ziñien | bariku | |
| zuek | | ego(n) | | ziran | larunbat(a) | |
| eurek | | joa(n) | | | igande | |
| etxe | | etor(ri) | | | | |

Ejemplo: Beragaz joan nintzan igandean.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. Me quedaré en tu casa el domingo.—2. Miguel se cansó mucho en el monte.—3. No hubiéramos venido a casa el lunes.—4. Aparecísteis con él el viernes en la iglesia de mi pueblo.—5. ¿Hubieran ido con nosotros al monte? No, no hubieran ido.—6. El sábado estuve con mis hermanos en el río.

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. Habríamos entrado aquí.—2. Habríamos llegado pronto a tu caserío.—3. Habrías ido al monte todos los días con tus amigos.—4. Sí, me hubiera alegrado mucho.—5. ¿Y a dónde hubierais ido? Hubiéramos ido al río.—6. A la tarde el cielo (era) azul.—7. Aquella tarde azul era muy calurosa. El cielo estaba (era) limpio, y el aire, suave (blando).—8. Tú no llegaste aquí con él.—9. El no se hubiera ahogado en el mar.—10. En los caseríos hay bueyes y vacas.—11. También en la casa hay una mesa y debajo de la mesa está el gato de Miguel.—12. ¿Dónde está el gato de Miguel? Está en casa, debajo de la mesa.—13. Yo no estoy en el caserío, sino en la calle del pueblo.—14. ¿Dónde estoy ahora? Tú estás en la calle.—15. Y tú ¿dónde vives? Yo vivo junto al río, en un gran caserío.—16. En la orilla del mar hay una hermosa campo.

b) Traducir al castellano:

1. Astero etorriko nintzan etxera.—2. Umeak ibaian itoko ziran.—3. Bidetik jausiko giñan.—4. Egunero, laster itzuliko nintzan etxera.—5. Asko poztuko ziñien.—6. Ez zan ori jazoko.

IZTEGIA

— Vocabulario —

ezkondu casarse

uda verano

udabarri (udaberri)

primavera

udagoien (udazken)

otoño

negu invierno

ondiño (oraindiño) to-

davía

arte hasta

sarritan frecuentemente

askotan muchas veces

sendo fuerte

alai alegre

gozo dulce

alan-olan así así

25' gn. IKASKAIA

OARRAK - Observaciones

● Obsérvense estos modismos: **ezkondu ta gero** literalmente «casar y luego» equivale a «después de casarse».

Esta forma «...**ta gero**» para expresar «después de» es muy típica en euskera.

● También es muy característico: **ama ta biok** (la madre y los dos) por «La madre y yo».

● **Arte** (hasta...) se coloca siempre detrás del nombre que determina:

Biar arte hasta mañana

Ikusi arte hasta la vista (hasta ver)

● El cambio del sufijo **ak** por **ok** es frecuente cuando se quiere dar más fuerza o énfasis a la palabra.

anai maiteok! ¡queridos hermanos!

● Obsérvense también el uso del infinitivo sin auxiliar como se dijo en la lección 22.

andik urten bai (de allí salir si) por «de allí ha salido»

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. Udea joan zan eta orain udagoiengan gagoz, baña sarritan udagoiena be ederra izaten da gure erri onetan.—2. Zerua garbi, aize bigun, gozoa, ez bero ez otz, ille oneik alai ta guztiz onak izaten dira askotan.—3. Baña gero, laster, negua etorriko da, negu illun, luze ta gogorra.—4. Ta gero, barriz, udabarria elduten da.—5. Eguenean nire adiskide bat ezkondu zan Begonia'n eta an egon nintzan nire amagaz.—6. Neskatilla gure etxe ondoan bizi da.—

7. Mutilla, ostera, ez da emengoa. Italia'n jaio zan, baña zazpi urtegaz etorri zan onantz eta Henao kalean bizi da orain.—8. Ez-kondu ta gero Italia'ra joan dira. Neskatillaren etxean biziko dira.—9. Gabeko amarrak arte an egon giñan ama ta biok.—10. Ori da, orduan, Maite'ren alabea? Bai, udean emen egoten da, baña laster joango da Barcelona'ra.—11. Zu ez ziñan Sestao'n bizi? Orain arte bai, baña udabarrian Bilbo'ra etorri giñan.—12. Poz-pozik egon giñan guztiak.—13. Egun on Maite, zelan zagoze?—14. Egunon Amaya, ni ondo ta zuek, zelan zagoze?—15. Ama ondo, baña aita dabil alan-olan.—16. Mutiko ori, norena da? Gure lagun batzuen semea, gure Mikeltxu'ren adiskide aundia.—17. Ta zuen Begoña, etorri da Lurdes'tik? Andik urten bai, baña etxera ez da ondiño eldu, Bayona'n geratu da lagun batzuen etxean.—18. Gu laster ba-goaz baserrira.

II.—EUSKERATU - Traducir al euskera :

1. *¿Qué sucede ahí? Han entrado muchos hombres.*—2. *Hoy en ocho (hoy ocho) también vinieron muchos hombres y mujeres.*—3. *Y nosotros, ¿cuántos seremos allí? Cien sí; muchachas, sesenta y cinco y muchachos cuarenta o cincuenta.*—4. *¡Muy bien! Me alegro.*—5. *Nació en Bermeo hace treinta años.*—6. *Es muchacho joven y fuerte.*

III. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas.

REPASO

a) Traducir al euskera :

1. *¿Dónde ha aparecido eso? Junto a la casa de Antón.*—2. *¿Cómo es ese muchacho? Su corazón no es malo, pero es chico torcido.*—3. *¿Y su hijo? El hijo es muy simpático.*—4. *Fui con él el domingo y anduve muy bien.*—5. *¿Te has cansado? No, hasta ahora no me he cansado.*—6. *¿Anduvisteis mucho ayer? Por lo mañana sí, pero por la tarde muy poco.*—7. *¿Cuándo se perdió vuestro perro? Ayer a la tarde, pero ha aparecido hoy.*—8. *¿Con quién anduviste ayer? Con los hijos de Andrés.*—9. *¿Dónde te escondiste ayer? Estuve con la tía.*—10. *Hoy a la mañana he andado con mis hijos.*—11. *Anduvimos mucho, pero no me cansé. Se quedarán aquí con nosotros.*—12. *¿Qué pasó luego? Llegó la noche y allí nos perdimos. Yo no me habría perdido: muchas veces he estado allí.*—13. *Una semana son siete días: lunes, martes, miércoles, jueves, viernes, sábado, domingo.*—14. *¿Es hoy jueves? No, ayer fue jueves; hoy es viernes y mañana será sábado. Después domingo.*

b) Traducir al castellano:

1. Zure etxean geratuko naz igandean.—2. Mikel, mendian asko nekatu zan.—3. Ez giñan etxera etorriko astelenean.—4. Bari-kuan nire erriko eleizan agertu ziñien beragaz.—5. Mendira joango ziran gugaz? Ez, ez ziran joango.—6. Larumbatan nire anaiakaz egon nintzan itaian.

IZTEGIA

— Vocabulario —

dot (det) *lo he ó tengo*
dozu (dezu) *lo has ó tie-
nes*

dau (du) *lo ha ó tiene*
dogu (degu) *lo hemos ó
tenemos*

dozue (dezute) *lo ha-
béis ó tenéis*

dabe (dute) *lo han ó
tienen*

zaldi caballo
atsegin placer
neke pena
jai fiesta
zauri herida
lengusu primo
lengusña prima
loba (illoba) sobrino
birloba (billoba) sobri-
no nieto

belaun rodilla
min dolor
oroimen memoria
gozamen gusto
ikusmen vista
oin pie

26'gn. IKASKAIA

OARRAK - Observaciones

● Verbo transitivo es aquel que expresa una acción que necesariamente ha de completarse en otra persona u objeto distintivo del sujeto.

«Tener» es transitivo porque se «tiene algo». En cambio «venir» es intransitivo porque viene «uno mismo»: el sujeto mismo de la acción.

● La forma transitiva del verbo «izan»: **dot; dozu; dau**, etc., que se emplea como auxiliar para toda la conjugación transitiva, se puede emplear también, con su significación de «haber» o «tener», como verbo independiente, con su propio complemento. Se usa así generalmente para expresar la idea de una posesión no material, por ejemplo:

seme bat dot *tengo un hijo*
oroimen ona dozu *tienes buena memoria*

● Para expresar la idea de tener algo materialmente (*en la mano, en nuestro poder*), se emplea preferentemente el verbo «euki», que veremos más adelante.

● El sujeto de este verbo, como el de todos los transitivos debe llevar siempre una «k», que a veces va precedida de una «e» eufónica.

nik lengusu bat dot *yo tengo un primo*
Begoña'k ume bat dau *Begoña tiene un niño*

Advertencia importante.—En euskera se acostumbra a modificar las formas verbales de transitivo cuando el complemento u objeto de la acción del verbo es plural. Pero esta modificación es diferente según los dialectos. Así la forma «**dau**» (tiene) se convierte en euskera vizcaíno en «**dauz**» cuando lo que tiene son varias cosas, y en guipuzcoano hace «**ditu**». Siguiendo el criterio establecido para este primer curso, prescindimos por el momento, de la pluralización, que luego aprenderá el alumno según el dialecto de unificación que siga. Esta eliminación hace que la expresión sea incorrecta pero perfectamente inteligible para cualquier euskeldun. Suena raro pero se entiende.

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. Nik zauri bat dot belarrian.—2. Zuk biotzeko miña dozu.—
3. Berak gozamen ona dau.—4. Guk neke aundi bat dogu.—5. Zuek oroimen ona dozue.—6. Eurek gozamen txarra dabe.—
7. Mikel'ek lengusiña bat dau.—8. Edurne'k be ume bat dau? Bai jauna, Edurne'k be ume bat dau.—9. Belauneko zauria ez da aundia baña txarra da.—10. Mikel, Josetxu ta zuk ikusmen ona dozue.—11. Atsegin aundia dot.—12. Nun dozu zauria? Emen, beso onetan.—
13. Zer dabe zure lengusuak? Neke aundi bat dabe.—14. Gaur gure aitaren eguna dogu.—15. Buruko miña dot.—16. Iñaki'k ikusmen txarra dau, baña oroimen aundia.—17. Gure erriko jaiak oso ederrak dira.—18. Txomin'en lobak nire birlobak dira.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | |
|----------|-----------|-------|-----|-------|-----------|----|
| nik | atsegin | on | a | dot | belaun(e) | an |
| zuk | neke | aundi | bat | dozu | biotz(e) | |
| berak | jai | eder | | dau | erri | |
| Mikel'ek | zauri | txar | | dogu | arpegi | |
| guk | lengusu | | | dozue | | |
| zuek | lengusiña | | | dabe | | |
| eurek | oroimen | | | | | |
| | gozamen | | | | | |
| | ikusmen | | | | | |
| | min | | | | | |

Ejemplo: Guk lengusu on bat dogu errian.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. Tenemos muchos sobrinos.—2. Y tú, Arantza, ¿cuántos primos tienes? Yo tengo cinco primos.—3. ¿Cuántos pies tienes? Tengo dos pies.—4. Miguel, ¿cuántas fiestas tenéis en el año? Tenemos pocas fiestas en el año.—5. ¿Cómo es el caballo de ellos? Es grande y hermoso.—6. Tengo una herida en la cara.

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. El verano se fue y ahora estamos en otoño, pero frecuentemente el otoño también suele ser hermoso en este pueblo nuestro.—2. El cielo limpio, el aire blando, dulce, ni calor ni frío, estos meses suelen ser, muchas veces, alegres y muy buenos (del todo buenos).—3. Pero luego, pronto, vendrá el invierno; invierno oscuro, largo y duro.—4. Y luego de nuevo llega la primavera.—5. El jueves un amigo mío se casó en Begoña y estuve allí con mi madre.—6. La muchacha vive junto a nuestra casa.—7. El muchacho, sin embargo, no es de aquí. Nació en Italia, pero con siete años vino hacia aquí y ahora vive en la calle Henao.—8. Después de casarse han ido a Italia. Vivirán en casa de la ¿Es esa, entonces, la hija de Maite? Sí, está aquí en verano pero pronto irá a Barcelona.—11. ¿No vivías en Sestao? Hasta ahora sí, pero en primavera vinimos a Bilbao.—12. Todos estuvimos muy contentos.—13. Buenos días Maite, ¿cómo estás?—14. Buenos días Amaya, yo bien y vosotros ¿cómo estáis?—15. La madre bien, pero el padre anda así así.—16. ¿De quién es ese chico? Hijo de unos compañeros nuestros, gran amigo de nuestro Miguelito.—17. ¿Y (vuestra) Begoña, ha venido de Lourdes? De allí ya ha salido pero todavía no ha llegado a casa. Se ha quedado en Bayona en casa de unos amigos.—18. Nosotros iremos (ya vamos) pronto al caserío.

b) Traducir al castellano:

1. Zer jazoten da or? Gizon asko sartu dira.—2. Gaur zortzi be amaikatxo gizon-emakume etorri zan.—3. Eta gu, zenbat izan-go gara an? Eun bai; neskaitillak irurogei ta bost; eta mutillak, berrogei edo berrogeitamar.—4. Ori ondo! Poztuten naz.—5. Bermeo'n jaio zan orain ogeitamar urte.—6. Mutil gazte ta sendoa da.

| | |
|-----------|--------------------|
| lan | trabajo |
| leku | sitio |
| erru | culpa, error |
| asti | tiempo |
| indar | fuerza |
| asmo | idea, pensamiento |
| sinismen | creencia, fe |
| itxaropen | esperanza |
| anka | pata |
| datorren | próximo |
| ba-ya | |
| ...ik | (sufijo partitivo) |

OARRAK - Observaciones

● Cuando en una pregunta se quiere destacar el verbo y éste aparece en forma simple o sintética, se le antepone la partícula «**ba**», que en este caso podemos traducir por «*ya*» y al complemento se le añade el sufijo «**ik**» o «**rik**», si éste es indeterminado, o al adjetivo que acompaña:

ba-dozue lanik? ¿(ya) tenéis trabajo?
ba-dozue lan onik ¿tenéis trabajo bueno?

● Al contestar afirmativamente se conserva la partícula «**ba**» delante del verbo, pero no el sufijo «**ik**».

bai, ba-dogu lana sí (ya) tenemos trabajo

● En cambio si la contestación es negativa, se conserva el sufijo «**ik**», pero la partícula «**ba**» se sustituye por la negación «**ez**».

ez, guk ez dogu lanik no, nosotros no tenemos trabajo

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. Zuk ez dozu errurik.—2. Mikel'ek ez dau indarrrik.—3. Guk ez dogu lekurik.—4. Zuek ez dozue oroimenik.—5. Eurek ez dabe sinismenik.—6. Iñaki, zuk ba-dozu lanik? Bai, nik ba-dot lana.—7. Mikel, zuk ba-dozu itxaropenik? Bai jauna, nik ba-dot itxaropena.—8. Begoña, zuk ba-dozu astirik? Ez jauna, nik ez dot astirik.—9. Arantza, zuek ba-dozue lekurik? Bai, guk ba-dogu lekua.—10. Nork dau errua? Begoña'k dau.—11. Josetxu, zure gurasoak badabe astirik? Ez jauna, nire gurasoak ez dabe astirik.—12. Nire aitak indar aundia dau.—13. Zure aitaren anaiak lan aundia dabe euren baserrian.—14. Guk ba-dogu lekua etxean.—15. Zer lan dozu zure baserrian? Lan barri bat dot.—16. Lan polita dozue.—17. Asmo barri bat dogu.—18. Sinismen bero-beroa dabe.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | | |
|-----|-------|-------|------|----------|-------|-------|-----|
| Ba- | dot | lan | ik? | Bai, ba- | dot | lan | a |
| | dozu | leku | rik? | Ez, ez | dozu | leku | ik |
| | dau | erru | | | dau | erru | rik |
| | dogu | astí | | | dogu | asti | |
| | dozue | indar | | | dozue | indar | |
| | dabe | | | | dabe | | |

Ejemplo: Ba-dozu astirik? Bai, ba-dot astia.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. Begoña, ¿tienes tiempo? Sí, tengo tiempo.—2. Y tú Arantza, ¿tienes trabajo? No, yo no tengo trabajo.—3. ¿Tienen vuestros padres amigos? Sí, nuestros padres tienen muchos amigos.—4. ¿Tienen trabajo en el caserío de los primos? No, ahora no tienen trabajo.—5. ¿Cuántas patas tienen los caballos? Tienen cuatro patas.—6. El próximo domingo tenemos una hermosa fiesta.

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. Yo tengo una herida en la oreja.—2. Tú tienes dolor de corazón.—3. El tiene buen gusto.—4. Nosotros tenemos una pena grande.—5. Vosotros tenéis buena memoria.—6. Ellos tienen mal gusto.—7. Miguel tiene una prima.—8. ¿También Edurne tiene un niño? Sí, señor, Edurne tiene también un niño.—9. La herida de la rodilla no es grande, pero es mala.—10. Miguel, Josechu y tú tenéis buena vista.—11. Tengo un gran placer.—12. ¿Dónde tienes la herida? Aquí, en este brazo.—13. ¿Qué tienen tus primos? Tienen una gran pena.—14. Hoy es (tenemos) el día de nuestro padre.—15. Tengo dolor de cabeza.—16. Ignacio tiene mala vista, pero gran memoria.—17. Las fiestas de nuestro pueblo son muy hermosas.—18. Los sobrinos de Domingo son sobrinos nietos míos.

b) Traducir al castellano:

1. Guk loba asko dogu.—2. Eta zuk, Arantza, zenbat loba dozu? Nik bost loba dot.—3. Zenbat oin dozu? Oin bi dot.—4. Mikel, urtean zenbat jai dozue? Guk, jai gitxi dogu urtean.—5. Zelakoa da euren zaldia? Aundia ta ederra da.—6. Zauri bat dot arpegian.

IZTEGIA

— Vocabulario —

| | |
|----------------|----------------|
| ipini | poner |
| ekarri | traer |
| eroan (eraman) | llevar |
| euki | tener |
| egin | hacer |
| arrantzale | pescador |
| artu | tomar |
| ikusi | ver |
| gauza | cosa |
| esne | leche |
| txapel | boina |
| ogi | pan |
| gaztai | queso |
| arri | piedra |
| zati | pedazo |
| apur | miga, pedacito |
| gazi | salado |
| arrain (arrai) | pez, pescado |

28' gn. IKASKAIA

OARRAK - Observaciones

● Añadiendo a cualquier verbo transitivo las formas de presente activo del verbo «**izan**», que hemos estudiado: **dot**, **dozu**, **dau**, etc., y los sufijos «**ten**» o «**ko**» se forman el presente habitual, el pasado o pretérito perfecto, y el futuro. Así:

ekarten dot suelo traer o traigo

ekarri dozu has traído

ekarriko dau traerá

● Colocando «**apur bat**» detrás de un nombre se traduce por «un poco de»:

Gaztai apur bat un poco de queso

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. Nik txapela ipinten dot.—2. Zuk esne apur bat ekarri dozu.—
3. Begoña'k ardi aundi bat ekarri dau.—4. Guk etxean olloak eukiten dogu.—5. Zuek gaztai bat egin dozue.—6. Eurek ogi zati bat artuko dabe.—7. Nik mendian ardi asko ikusten dot.—
8. Zuk arri batzuk ekarri dozu.—9. Mikel'ek gauza gozoak eroango dau bere etxera.—10. Guk arri garbiak artuten dogu ibaitik.—11. Zuek ogi gazi batzuk egin dozue.—12. Eurek lau gaztai bigun ipiñiko dabe maian.—13. Nik ez dot arraiñik ekarri.—
14. Zuk ez dozu txapelik ipinten.—15. Arantza'k ez dau gauza asko eroango errira.—16. Guk ez dogu arraiñak ikusten ibaian.—
17. Zuek ez dozue ogirik egin.—18. Begoña'k eta Arantza'k ez dabe arriak artu bidetik.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | |
|----------|--------|-------|--------|----------|-----|-------|
| nik | gauza | gozo | a | ekar(ri) | ten | dot |
| zuk | esne | gazi | ak | eroa(n) | ko | dozu |
| berak | ume | garbi | bat | euki | go | dau |
| Begoña'k | arri | loi | batzuk | ikus(i) | | dogu |
| guk | gaztai | apur | bi | egi(n) | | dozue |
| zuek | ogi | zati | | ar(tu) | | dabe |
| eurek | txapel | txiki | | ipiñ(i) | | |

Ejemplo: Berak arri garbi batzuk eroan dau.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. *¿Tendrás un poco de leche en tu casa?—2. Sí, hay mucha leche en casa y también un trozo de queso.—3. El sobrino de Antón es pescador.—4. Los pescadores cogen peces en el mar.—5. Cogemos piedras en el río.—6. He visto muchas cosas en el pueblo.*

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. *Tú no tienes culpa.—2. Miguel no tiene fuerza.—3. Nosotros no tenemos sitio.—4. Vosotras no tenéis memoria.—5. Ellos no tienen fe (creencias).—6. Iñaki, ¿tú tienes trabajo? Sí, yo tengo trabajo.—7. Miguel, ¿tú tienes esperanza? Sí, señor, yo tengo esperanza.—8. Begoña, ¿tienes tiempo? No, señor, no tengo tiempo.—9. Arantza, vosotras tenéis sitio? Sí, nosotras tenemos sitio.—10. ¿Quién tiene la culpa? La tiene Begoña.—11. Josechu, ¿tienen tiempo tus padres? No, señor, mis padres no tienen tiempo.—12. Mi padre tiene gran fuerza.—13. Los hermanos de tu padre tienen gran trabajo en su caserío.—14. Nosotros tenemos sitio en casa.—15. ¿Qué trabajo tienes en tu caserío? Tengo un nuevo trabajo.—16. Tenéis trabajo bonito.—17. Tenemos una nueva idea.—18. Tienen fe muy fuerte (muy caliente).*

b) Traducir al castellano:

1. *Begoña, ba-dozu astirik? Bai, ba-dot astia.—2. Eta zuk, Arantza, lanik ba-dozu? Ez, nik ez dot lanik.—3. Zuen gurasoak ba-dabe adiskiderik? Bai, gure gurasoak adiskide asko dabe.—4. Lanik ba-dabe lengusuen baserrian? Ez, orain ez dabe lanik.—5. Zenbat anka dabe zaldiak? Lau anka dabe.—6. Jai eder bat dogu datorren igandean.*

IZTEGIA

— Vocabulario —

| | |
|----------------|------------------|
| logela | dormitorio |
| loi | sucio |
| okela | carne |
| txori | pájaro |
| egur | leña |
| ardao | vino |
| kollara (zali) | cuchara |
| azpil | plato |
| gatz | sal |
| asto | burro |
| ontzi | vaso, recipiente |

29' gn. IKASKAIA

OARRAK - Observaciones

● Las preguntas que se hacen con formas verbales compuestas, es decir, con auxiliar, no llevan la partícula «ba» antepuesta al verbo.

ekarri dozu ogirik? *¿has traído pan?*
eroan dozue esnea? *¿habéis llevado la leche?*

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. Mikel, zer ekarri dozu eskuan? Ogi zati bat ekarri dot.—2. Eroaten dau okelarik Arantza'k? Ez, Arantza'k ez dau okelarik eroaten, gatza baño.—3. Zenbat logela eukiko dogu? Logela bi eukiko dogu.—4. Begoña'k eta Arantza'k ardao gozoa artu dabe? Bai, eurek ardao gozoa artu dabe.—5. Ardao gozoa ekarri dogu etxetik.—6. Zuk ogi biguna eroan dozu mendira.—7. Zaldi au ederra da.—8. Ikusi dozu itxasoa, Mikel? Bai, nik itxaso urdiña ikusi dot.—9. Guk egur batzuk artu dogu bidean eta etxera eroan dogu.—10. Zuek ontzi garbiak ipinten dozue maian.—11. Zer ikusi dozu? Txori baltz bat.—12. An asto bat ikusten dogu.—13. Zuek gatza eroango dozue maira.—14. Txori polit bat ekarriko dabe andik.—15. Nork egin dau ori? Zuk egin dozu? Ez jauna, nik ez dot egin.—16. Mutil batzuk egin dabe.—17. Eurek egin dabe.—18. Gaur egin dabe.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | | |
|----------|----|-------|---------|-------|--------|----------|------|
| nik | ez | dot | logela | loi | a | ipiñ(i) | ten |
| zuk | | dozu | ardao | garbi | ak | ekar(ri) | ko |
| berak | | dau | okela | gozo | bat | eroa(n) | go |
| Mikel'ek | | dogu | txori | gazi | batzuk | euki | tzen |
| guk | | dozue | kollara | polit | bi | ikus(i) | |
| zuek | | dabe | ontzi | motz | | ar(tu) | |
| eurek | | | azpil | bigun | | | |

Ejemplo: Nik ez dot kollara loa ipiñi.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. He visto una habitación sucia en tu casa.—2. ¿Habéis traído un vaso sucio? No, nosotros no hemos traído vasos sucios.—3. ¿Has visto burros en el monte? Sí, he visto cuatro burros y también dos caballos.—4. En nuestra casa tenemos (solemos tener) mucha leña.—5. ¿Has puesto platos en esa mesa? No señor, no he puesto platos, ni vasos tampoco.—6. ¿Cuántas cucharas hay en la mesa? Hay cuatro cucharas.

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. Yo pongo (suelo poner) la boina.—2. Tú has traído un poco de leche.—3. Begoña ha traído una oveja grande.—4. Nosotros en casa tenemos (solemos tener) gallinas.—5. Vosotros habéis hecho un queso.—6. Ellos tomarán un trozo de pan.—7. Yo veo muchas ovejas en el monte.—8. Tú has traído unas piedras.—9. Miguel llevará cosas ricas a su casa.—10. Nosotros cogemos piedras limpias del río.—11. Vosotros habéis hecho unos panes salados.—12. Ellos pondrán cuatro quesos blandos en la mesa.—13. Yo no he traído pescado.—14. Tú no te pones boina.—15. Arantza no llevará muchas cosas al pueblo.—16. Nosotros no vemos los peces en el río.—17. Vosotros no habéis hecho pan.—18. Begoña y Arantza no han cogido las piedras del camino.

b) Traducir al castellano:

1. Esne apur bat eukiko dozu zure etxean?—2. Bai, esne asko dago etxean, eta gaztai zati bat be bai.—3. Anton'en lobeá arrantzalea da.—4. Arrantzaleak arraiñak artuten dabe itxasoan.—5. Arriak artuko dogu ibaian.—6. Nik gauza asko ikusi dot errian.

— Vocabulario —

entzun *oír, escuchar*

erosi *comprar*

abesti *canción*

jabe *amo, jefe*

morroi *criado*

neskame *criada*

zergaitik? *¿por qué?*

norgaitik? *¿por quién?*

...agaitik *por... (uno)*

...akaitik *por... (va-
rios)*

30^o gn. IKASKAIA

OARRAK - Observaciones

● A la pregunta **norgaitik?** (o «*nogaitik*») que significa «*por quién*» (por causa o por culpa de quién) se responde añadiendo a la palabra o palabras que expresan la contestación el sufijo **agaitik** o **akaitik**.

Se añade a los nombres, a los pronombres o a cualquier palabra que lo necesite:

Arantza'gaitik *por Arantza (a causa de Arantza)*

nigaitik *por mí*

orregaitik *por eso*

● Obsérvese la frase «**morroi batek ardao ta ogia ipiñi dau**». La **k** característica del sujeto de verbo transitivo se añade en este caso a **bat**, intercalando una «**e**» eufónica. Es decir, que esta **k** se añade a cualquier palabra o frase que haga de sujeto transitivo.

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. Nigaitik joan zara.—2. Zugaitik etorri naz.—3. Arantza, zergaitik jausi zara? Zugaitik jausi naz.—4. Iñaki, nigaitik etorri zara? Ez naz zugaitik etorri, aitagaitik baño.—5. Norgaitik etorri zara? Nire emazteagaitik etorri naz; beragaitik joan naz.—6. Nire anaiaagaitik etorri naz.—7. Ni, ostera, zugaitik jausi naz.—8. Gugaitik erosi dozue ori? Bai, zuekaitik erosi dogu.—9. Gaur arratsaldean abesti eder batzuk entzun dot gure kalean.—10. Biar goizean mai barriak ipiñiko dogu etxean.—11. Mikel'ek txori batzuk artu dau.—12. Mutil asko ikusiko dogu mendi aretan.—13. Erritik bost ollar ekarri dozue.—14. An gauza asko ikusi dogu.—15. Jabeak mai bi ipiñi dau etxe aurrean, eta morroi batek ardao ta ogia ipiñi dau maietan.—16. Zer entzun dozu kalean? Abesti polit batzuk entzun dot.—17. Zenbat morroi dagoz bere base-
rrian? Iru morroi eta neskame bi.—18. Neskamerik ba-dozu zure etxean? Ez, nire etxean neskamerik ez dogu.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | |
|-----------|---------|----------|-------|--------|---------|---------|
| zergaitik | joan | nintzan? | ni | gaitik | joan | nintzan |
| norgaitik | etorri | ziñan? | zu | kaitik | etorri | ziñan |
| | gogaitu | zan? | bera | | gogaitu | zan |
| | nekatu | giñan? | gu | | nekatu | giñan |
| | geratu | ziñien? | zuek | | geratu | ziñien |
| | jausi | ziran? | eurek | | jausi | ziran |
| | | | ama | | | |
| | | | aita | | | |

Ejemplo: Zergaitik nekatu ziñien? Zuekaitik nekatu giñan.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. *Mi padre es el jefe de la casa.*—2. *¿Por qué no vinisteis ayer a casa? No fuimos por mi madre.*—3. *Voy al monte todos los días por los hijos.*—4. *Por ti se cansó Juanito ayer.*—5. *Oír esas canciones por mi amigo Ignacio.*—6. *¿Por quién fuiste al río? Por Antonio.*

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes guipuzcoanas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. *Miguel, ¿qué has traído en la mano? He traído un trozo de pan.*—2. *Arantza ¿suele llevar carne? No, Arantza no suele llevar carne, sino sal.*—3. *¿Cuántos dormitorios tendremos? Tendremos dos dormitorios.*—4. *¿Begoña y Arantza han tomado vino dulce? Sí, ellas han tomado vino dulce.*—5. *Hemos traído vino dulce de casa.*—6. *Tú has llevado pan blando al monte.*—7. *Este caballo es hermoso.*—8. *Miguel, ¿has visto el mar? Sí, yo he visto el mar azul.*—9. *Nosotros hemos cogido unas leñas en el camino y las hemos llevado a casa.*—10. *Vosotros ponéis vasos limpios en la mesa.*—11. *¿Qué has visto? Un pájaro negro.*—12. *Allí vemos un burro.*—13. *Vosotros llevaréis sal a la mesa.*—14. *Traerán de allí un pájaro bonito.*—15. *¿Quién ha hecho eso? Tú lo has hecho? No, señor, yo no lo he hecho.*—16. *Lo han hecho unos chicos.*—17. *Lo han hecho ellos.*—18. *Hoy lo han hecho.*

b) Traducir al castellano:

1. *Logela loi bat ikusi dot zure etxean.*—2. *Ontzi loi bat ekarri dozue? Ez, guk ez dogu ontzi loirik ekarri.*—3. *Ikusi dozu astorik mendian? Bai, nik lau asto ikusi dot eta zaldi bi be bai.*—4. *Gure etxean egur asko eukiten dogu.*—5. *Ipiñi dozu azpillik mai orretan? Ez jauna, ez dot azpillik ipiñi eta ontzirik be ez.*—6. *Zenbat kollara dagoz maian? Lau kollara dagoz.*

IZTEGIA

— Vocabulario —

| | |
|-------------|---------------|
| soñeko | vestido |
| azur (ezur) | hueso |
| jan | comer |
| norentzat | ¿para quién? |
| niretzat | para mí |
| zuretzat | para ti |
| beretzat | para él |
| guretzat | para nosotros |
| zuentzat | para vosotros |
| eurentzat | para ellos |
| ...arentzat | para el... |
| ...entzat | para los... |
| eskaratz | cocina |

31' gn. IKASKAIA

OARRAK - Observaciones

● A la pregunta, ¿para quién?: «**norentzat**»? se contesta generalmente en euskera añadiendo el sufijo «**tzat**» al nombre o pronombre que indica el destinatario de la acción del verbo, pero éste en forma posesiva, así por ejemplo:

Lurdes'entzat soñeko bat ekarri dot
He traído un vestido para Lourdes
guk ogia erosi dogu txakurrarentzat
hemos comprado pan para el perro
niretzat ekarri dau esnea ha traído
leche para mí

● De la misma forma se añade este sufijo a los pronombres demostrativos «este», «ese» y «aquel».

| | | | | | |
|------------------|------------|-------------------|-----------|------------------|---------------|
| onentzat | para este | orrentzat | para ese | arentzat | para aquel |
| oneintzat | para estos | orreintzat | para esos | areintzat | para aquellos |

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. Nik soñeko bat erosiko dot zuretzat.—2. Zuk ogi bat ekarri dozu niretzat.—3. Berak azurrak eroan dau txakurrarentzat.—4. Guk ez dogu ardaorik erosten semeentzat.—5. Zuek gauza politikak ekarten dozue guretzat.—6. Eurek ez dabe ogirik erosten zuentzat.—7. Mikel, norentzat ekarri dozu ogia? Nire anaiarentzat ekarri dot.—8. Josetxu, aititak norentzat ekarri dau txakurra? Niretzat ekarri dau, ez zuretzat.—9. Begoña'rentzat erosten dozu gaztaia? Ez, nik ez dot gaztairik erosten Begoña'rentzat, amamarentzat baño.—10. Egurra ekarten dot egunero nire aitarentzat.—11. Soñeko bat erosi dozu niretzat.—12. Mikel'ek azur bat ekarri dau txakurrarentzat.—13. Zuek mai bat egin dozue zuen izekoarentzat.—14. Nork erosi dau ollo orreik? Gure neskameak.—15. Nire adiskideak okela asko jan dau erri aretan.—16. Ondartzan abesti barri bi entzun dogu.—17. Etzeko neskameak ez dau ogirik artu eskaratzetik.—18. Neskameak eta nagusiak eskaratzean jaten dabe.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | | | | |
|-----------|--------|-------|--------|---------|--------|------|------|--------|-------|
| norentzat | egin | dot | azur | au? | nire | aren | tzat | egin | dot |
| | euki | dozu | ogi | ori? | zure | en | | euki | dozu |
| | erosi | dau | txakur | a? | ama | | | erosi | dau |
| | eroan | dogu | txori | oneik? | aita | | | eroan | dogu |
| | ipiñi | dozue | zaldi | orreik? | txakur | | | ipiñi | dozue |
| | ekarri | dabe | asto | areik? | gure | | | ekarri | dabe |
| | artu | | soñeko | | zuen | | | artu | |
| | | | | | euren | | | | |

Ejemplo: Norentzat egin dozu ogi a? Zuentzat egin dot.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. Por eso hemos traído un pan y queso, pero no hemos traído vino.—2. ¿Para quién has cogido esos pájaros? Los he cogido para mi sobrino.—3. Y ese burro, ¿para quién lo habéis comprado? Para nosotros.—4. Begoña ha traído un vestido para tu madre.—5. Llevaremos al caserío pan blanco para mi abuelo.—6. He puesto en la mesa cuatro platos para vosotros.

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. Has ido por mí.—2. He venido por ti.—3. Arantza, ¿por qué has caído? He caído por ti.—4. Ignacio, ¿has venido por mí? No he venido por ti sino por el padre.—5. ¿Por quién has venido? He venido por mi mujer, he ido por ella.—6. He venido por mi hermano.—7. Yo, en cambio, he caído por ti.—8. ¿Eso lo habéis comprado por nosotros? Sí, lo hemos comprado por vosotros.—9. Esta tarde, en nuestra calle, he oído unas canciones hermosas.—10. Mañana a la mañana pondremos mesas nuevas en casa.—11. Miguel ha cogido unos pájaros.—12. En aquel monte veremos muchos chicos.—13. Habéis traído cinco gallos del pueblo.—14. Allí hemos visto muchas cosas.—15. El amo ha puesto dos mesas delante de casa, y un criado ha puesto vino y pan en las mesas.—16. ¿Qué has oído en la calle? He oído unas bonitas canciones.—17. ¿Cuántos criados hay en su caserío? Tres criados y dos criadas.—18. ¿Tienes criada en tu casa? No, en nuestra casa no tenemos criadas.

b) Traducir al castellano:

1. Etxeko nagusia nire aita da.—2. Zergaitik ez ziñien etxera etorri atzo?, Nire amagaitik ez giñan joan.—3. Semeakaitik egunerero mendira joaten naz.—4. Zugaitik nekatu zan atzo Jontxu.—5. Nire adiskide Iñaki'gaitik entzungo dot abesti orreik.—6. Nogaitik joan ziñan ibaira? Andoni'gaitik.

— Vocabulario —

neban (nuen) *lo había o tenía*
zenduan (zenduen) *lo habías o tenías*
eban (zuen) *lo había o tenía*
genduan (genduen) *lo habíamos o teníamos*
zenduen (zenduten) *lo habíais o teníais*
eben (zuten) *lo habían o tenían*
oitura *costumbre*
zor *deuda*
zetarako? *¿para qué?*
...rako *para...*

OARRAK - Observaciones

● Al igual que la forma de presente, el tiempo pasado del verbo «**izan**»; en su acepción transitiva, puede emplearse él solo, en el sentido de «*tener*». En Guipúzcoa es muy corriente, incluso en ocasiones en que debería emplearse el «**euki**» y en cambio en Vizcaya se emplea este último excesivamente.

nik neke aundi bat neban *tenía una gran pena*

● Al igual que en las formas de presente, en las preguntas o contestaciones afirmativas se antepone al verbo la partícula «**ba**», a menos que se haga la pregunta con un pronombre interrogativo.

● Para traducir la preposición castellana «para», cuando no indica «dirección hacia», o destino de la acción del verbo como hemos visto en la lección anterior, sino en otras acepciones como al contestar a las preguntas ¿para qué?, ¿para cuándo?, etc., se emplea el sufijo «**rako**» si se trata de un nombre:

asmo ederrak eban negurako *tenía hermosas ideas para el invierno*

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. **Nik oitura ori neban.**—2. **Zuk asmo polita zenduan.**—3. **Begoña'k buruko min aundia eban.**—4. **Guk morroi on bat genduan.**—5. **Zuek neskame gazte bat zenduen.**—6. **Eurek zor asko eben.**—7. **Zuk, ba-zenduan itxaropenik? Bai, nik ba-neban itxaropen apur bat.**—8. **Zuek oitura ori ba-zenduen? Ez jauna, guk ez genduan oitura ori.**—9. **Nork eban errua? Eurek eben errua.**—10. **Nik adiskide bi neban.**—11. **Zuk ez zenduan oitura orreik.**—12. **Mikel'ek barri txar batzuk eban.**—13. **Guk ez genduan jai areik.**—14. **Zuek lau seme-alaba zenduen.**—15. **Josetxu ta Mikel'ek neke aundiak eben mendian.**—16. **Zor aundia genduan, baña orain ez dogu zorrik.**—17. **Asmo ederrak eban negurako.**—18. **Ez eben atsegiñik erri aretan.**—19. **Zetarako ekarri dozu egur ori? Negurako ekarri dot.**

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | |
|----------|------|----------|--------|---------|
| nik | iru | oitura | a | neban |
| zuk | lau | zor | ak | zenduan |
| berak | amar | asmo | bat | eban |
| Mikel'ek | | sinismen | bi | genduan |
| guk | | morroi | asko | zenduen |
| zuek | | neskame | batzuk | eben |
| eurek | | zauri | | |

Ejemplo: Mikel'ek morroi bat eban.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. Miguel tenía una gran fe.—2. Mi padre tenía dos criados en el caserío.—
3. Mis hijos tenían buenas costumbres.—4. El criado de mi tío tenía una herida en el brazo.—5. Vosotros tenéis hermosas ideas.—6. Tenías una mala costumbre, pero ahora no la tienes.

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. Yo compraré un vestido para ti.—2. Tú has traído un pan para mí.—3. El ha llevado huesos para el perro.—4. Nosotros no compramos vino para los hijos.—5. Vosotros traéis cosas bonitas para nosotros.—6. Ellos no han llevado pan para nosotros.—7. Miguel, ¿para quién has traído el pan? Lo he traído para mi hermano.—8. Josechu, ¿el abuelo para quién ha traído el perro? Lo ha traído para mí, no para ti.—9. ¿Compras el queso para Begoña? No, no compro queso para Begoña, sino para la abuela.—10. Suelo traer leña a diario para mi padre.—11. Has comprado un vestido para mí.—12. Miguel ha traído un hueso para el perro.—13. Vosotros habéis hecho una mesa para vuestra tía.—14. ¿Quién ha comprado esas gallinas? Nuestra criada.—15. Mi amigo ha comido mucha carne en aquel pueblo.—16. En la playa hemos oído dos nuevas canciones.—17. La criada de casa no ha cogido pan de la cocina.—18. La criada y el amo comen en la cocina.

b) Traducir al castellano:

1. Orregaitik ogi bat eta gazaia ekarri dogu, baña ez dogu ardaorrik ekarri.—2. Norentzat artu dozu txori orreik? Nire lobaren—

- tzat artu dot orreik.—3. Eta, asto ori norentzat erosi dozue? Guretzat.—4. Zure amarentzat soñeko bat ekarri dau Begoña'k.—5. Ogi zuria eroango dogu baserrira nire aitarentzat.—6. Maian lau azpil ipiñi dot zuentzat.

IZTEGIA

— Vocabulario —

| | | |
|--------|------------|-----------------|
| esan | decir | |
| saldu | vender | |
| len | antes | |
| madari | pera | |
| okaran | (aran) | ciruela |
| bean | abajo | |
| goian | arriba | |
| giltz | llave | |
| areitz | (aritz) | roble |
| arte | encina | |
| pago | haya | |
| piñu | (ler) pino | |
| tontor | (gallur) | cima, cumbre |

33' gn. IKASKAIA

OARRAK - Observaciones

● Con las formas del pasado del verbo «**izan**» que hemos estudiado en la lección anterior y las de infinitivo del verbo que se quiere conjugar se tienen los tiempos siguientes:

| | |
|---------------|---------------------|
| ikusi neban | vi |
| ikusten neban | solía ver, o veía |
| ikusiko neban | hubiera visto vería |

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. Nik okaran asko jaten neban nire amamaren baserrian.—2. Zuk abesti eder bat entzun zenduan, ez da?—3. Mikel'ek areitz eder bat ikusiko eban mendi aretan.—4. Guk be ori esaten genduan.—5. Zuek madari batzuk erosi zenduen erriko kalean.—6. Eurek okaran eder bat artuko eben zuen baratzean.—7. Nire lagun batek ikusi eban.—8. Ez genduan ondo entzuten.—9. Zer jaten zenduen Paris'en? Askok jaten genduan, asko eta oso ondo.—10. Madari bat artuko genduan.—11. Ez eben etxea salduko.—12. Atzo ikusi neban erri onetan.—13. Izekoaren etxean madari bat jan zenduan.—14. Ikatz ona ekarri eben atzo.—15. Ez neban giltza eroan.—16. Zer ikusi zenduan andik? Arte eder bat ikusi neban.—17. Gure aitaren baserrian gela asko dagoz; bean, eskaratza ta lau gela; ta goian beste sei be bai.—18. An goian, mendi tontorrean, aize otza sarritan ibiltzen da.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | | | | |
|------|--------|-------|----------|-----|---------|-------|-------|-----|-----|
| iru | okaran | a | ja(n) | ten | neban | mendi | on | eta | n |
| lau | madari | ak | saldu | ko | zenduan | etxe | or(r) | | ra |
| amar | giltz | bat | ekar(ri) | go | eban | baso | a(r) | | tik |
| eun | areitz | bi | eroa(n) | | genduan | ortu | | | |
| | arte | asko | ipiñ(i) | | zenduen | erri | | | |
| | pago | gitxi | eros(i) | | eben | | | | |
| | piñu | | euki | | | | | | |

Ejemplo: Zuk eun areitz saldu zenduan baso aretan.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. *En nuestros montes y bosques veía antes muchas encinas y hayas.—2. Ahora, en cambio, han puesto pinos en todos los rincones.—3. El domingo pasado estuve en el caserío de un amigo de Ceánuri.—4. El caserío es hermoso; abajo, primero, el portal grande, y luego la cocina.—5. ¿Dónde pusiste las llaves del portal? Aquí no están.—6. Ayer por la tarde vendimos los pinos del monte.*

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. *Yo tenía esa costumbre.—2. Tú tenías bonita idea (pensamiento).—3. Begoña tenía gran dolor de cabeza.—4. Nosotros teníamos un buen criado.—5. Vosotros teníais una criada joven.—6. Ellos tenían muchas deudas.—7. ¿Tú tenías esperanzas? Sí, yo tenía un poco de esperanza.—8. ¿Vosotros teníais esa costumbre? No señor, nosotros no teníamos esa costumbre.—9. ¿Quién tenía la culpa? Ellos tenían la culpa.—10. Yo tenía dos amigos.—11. Tú no tenías esas costumbres.—12. Miguel tenía unas noticias malas.—13. Nosotros no teníamos aquellas fiestas.—14. Vosotros teníais cuatro hijos (hijas e hijos).—15. Josechu y Miguel tenían grandes dificultades en el monte.—16. Teníamos deuda grande, pero ahora no tenemos deudas.—17. Tenía hermosos planes (pensamientos) para el invierno.—18. No tenían placer en aquel pueblo.—19. ¿Para qué has traído esa leña? La he traído para el invierno.*

b) Traducir al castellano:

1. *Mikel'ek sinismen aundi bat eban.—2. Nire aitak morroi bi eban baserrian.—3. Nire semeak oitura onak eban.—4. Nire osabaren morroiak zauri bat eban besoan.—5. Asmo ederrak zenduen zuek.—6. Oitura txar bat zenduan baña orain ez dozu.*

zugatz (zugaitz) *árbol*
lizar (lexar) *fresno*
igali *fruta*
malluki (marrubi) *fresa*
ur (urretz) *avellana*
intxaur *nuez*
kerexa (gerezi) *cereza*
azal *pellejo, corteza*
ikaskai *lección*
latz *díspero*
me *delgado*
beste *otro*
barruan *dentro de*
inguruan *alrededor de*
batez be (batez ere) *principalmente*
bigarren *segundo*
batzuen *de unos*
jakin *saber*

34' gn. IKASKAIA

OARRAK - Observaciones

● Si queremos decir expresiones como «*se dice*», «*se coge*», etc., es decir, la forma impersonal de los verbos transitivos, basta conjugarlos con el auxiliar intransitivo de tercera persona: «**da**, **dira**, **zan**, **ziran**, que ya conocemos: **etxe bat ikusten da** *se ve una casa* **ez dira jaten** *no se comen* **ez ziran salduten** *no se vendían*

● Obsérvese cómo se une el artículo a cualquier palabra que lo necesite, aunque no sea sustantivo ni adjetivo calificativo.

bata (bat-a) *la una*

● El sufijo ...**garren** sirve para convertir en ordinal cualquier número excepto el «*uno*» que hace **lenengo**, así:

| | |
|--|---|
| bat <i>uno</i> | lenengo <i>primero</i> |
| bi <i>dos</i> | bigarren <i>segundo</i> |
| iru <i>tres</i> | irugarren <i>tercero, y así sucesivamente; y derivados de ellos:</i> |
| bigarrena (bi-garren-a) <i>el segundo</i> | |
| lenengoa <i>el primero,</i> | irugarrena (ira-garren-a) <i>el tercero, etc.</i> |

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. Emendik ez dira zugatz areik ikusten.—2. Jaten dira igale oneik? Bai, jauna, igali orreik jaten dira, oso gozoak dira.—3. Atzo goizean, kalean, ez zan igalirik salduten.—4. Nik, egunero, okaranak jaten neban nire etxean.—5. Zuk, beste egunean, iru lizar ikusi zenduan mendian.—6. Begoña'k soñeko bi erosiko dau Bilbo'n biar arratsaldean.—7. Guk, goizero, mallukiak artuten genduan ortuan.—8. Zuek abesti batzuk entzun zenduen gure kalean.—9. Eurek intxaurrak eukiten eben euren etxean.—10. Arantzeta, kerexak ekarri zenduan ortutik? Bai, jauna, kerexak eta intxaurrak ekarri neban atzo arratsaldean.—11. Nork eroaten eban

urrak osabearen etxera astero? Guk eroaten genduan.—12. Iñaki'k ikaskai guztiak jakiten eban.—13. Zuek zenbat ikaskai jakin zenduen? Guk ogei ta iru ikaskai jakin genduan.—14. Mallukiak jaten genduan.—15. Iturri ondoan lizar gazte batzuk ipiñi eben.—16. Igali batzuen azala latza izaten da, eta ez da jaten, bafña mallukiak ez dabe azalik.—17. Urrak, oster, azal bi eukiten dabe; bata, mea, barruan; bigarrena, oso gogorra, ganean.—18. Inguruan, beste igali-zugatz asko be ikusi neban; sagar, madari, okaran eta kerexak, batez be.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | | | | | |
|---------|-------|----|----------|-----|-------|--------|----|------|-----|-----|
| malluki | asko | ak | ja(n) | ten | da | etxe | on | (au) | eta | n |
| ur | gitxi | a | saldu | ko | dira | mendi | or | (r) | | |
| intxaur | on | | ikus(i) | go | zan | baratz | a | (r) | | tik |
| kerexa | txar | | eros(i) | | ziran | baso | | | | |
| madari | txiki | | eroa(n) | | | bide | | | | |
| sagar | aundi | | ekar(ri) | | | ortu | | | | |
| okaran | | | artu | | | zugatz | | | | |

Ejemplo: Intxaur onak artuten dira basoetan.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. Se ven muchas fresas en los caminos del monte.—2. La fruta se coge de los árboles.—3. Mañana se venderán muchas cerezas en la plaza del pueblo.—4. En la huerta no se veían manzanas.—5. Aquellas hayas y encinas eran hermosas.—6. Hay unos muchachos dentro de la casa.

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. Yo solía comer muchas ciruelas en el caserío de mi abuela.—2. Tú oíste una hermosa canción ¿no?—3. En aquel monte Miguel hubiera visto un hermoso roble.—4. Nosotros también decíamos eso.—5. Vosotros comprasteis unas peras en la calle del pueblo.—6. Ellos hubieran cogido una hermosa ciruela en vuestro huerto.—7. Lo vio un amigo mío.—8. No oíamos bien.—9. ¿Qué comíais en París? Comíamos mucho, mucho y muy bien.—10. Hubiéramos cogido una pera.—11. No hubieran vendido la casa.—12. Ayer lo vi en este pueblo.—13. Comiste una pera en casa de la tía.—14. Ayer

trajeron buen carbón.—15. No llevé la llave.—16. ¿Qué viste desde allí? Vi una hermosa encina.—17. En el caserío de nuestro padre hay muchas habitaciones; abajo la cocina y cuatro habitaciones, y arriba otras seis también.—18. Allí arriba, en la cima del monte hace (anda) frecuentemente aire frío.

b) Traducir al castellano:

1. Gure mendi ta basoetan pago ta areitz asko ikusten neban len.—
2. Orain, ostera, piñuak ipiñi dabe bazter guztietan.—3. Lengo igandean Zeanuri'ko lagun baten baserrian egon nintzan.—4. Ederra da baserria; bean atari aundia lenengo; ta gero eskaratza.—
5. Nun ipiñi zenduan atariko giltzak? Emen ez dagoz.—6. Atzo arratsaldean mendiko piñuak saldu genduan.

IZTEGIA

— Vocabulario —

ezer algo, nada
iñor alguno, nadie
iñoiz alguna vez, nunca
iñun algún sitio, ningún sitio

ezebez nada
iñorbez nadie
iñoizbez nunca
iñunbez en ningún sitio

zerbait algo
norbait alguien
noizbait alguna vez
nunbait en algún sitio

ikasi aprender, estudiar
orrelako como eso, esos
joan dan pasado

35' gn. IKASKAIA

OARRAK - Observaciones

● Derivados de los pronombres interrogativos «**zer**, **nor**, **noiz** y **nun**» que ya conocemos, existen otros que aparecen en el vocabulario, cuyo uso es como sigue:

● Los del primer grupo se usan solamente en frases interrogativas o negativas:

ba'dago ezer emen? ¿hay algo aquí?

Con el verbo en forma negativa tienen sentido negativo al traducirlas al castellano:

ez, ez dago ezer no, no hay nada

● Los del segundo se usan con su sentido negativo sin acompañar al verbo:

zer ekarri dozue? ¿qué habéis traído?

ezebez nada

● Los del tercer grupo deben usarse solamente en frases afirmativas:

etxean norbait dago alguien está en casa

● Obsérvase **orkoak** (or-ko-ak) los de ahí como ejemplo de la forma en que pueden añadirse varios sufijos a una palabra.

● **Norbaitek ikusi dau** alguien lo ha visto (norbait-ek); la **k** con la «e» eufónica se le añade por ser sujeto de verbo transitivo.

Iñorkbez nadie (iñor-k-bez). Lleva una **k** intercalada después de **iñor** para indicar que éste es sujeto de una frase transitiva aunque en este caso esté implícita (alguien *ha visto*).

● Ténganse en cuenta estas observaciones en todos los casos análogos que aparezcan.

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. Nor bizi da etxe orretan? Or... Burgoa jauna.—2. Ta beste orretan? Orkoak etorri barriak dira.—3. Ta emen, iñor bizi da? Bai, norbait bizi da.—4. Ez, orain ez da iñor bizi.—5. Zer dago maiganean? Gaztai bat.—6. Ez dago ezer.—7. Ezer ikasi dozu etxean? Ez, ezebez.—8. Bai, zerbait ikasi dot, baña gitxi.—9. Noiz egon ziñan mendi orretan? Joan dan udean.—10. Ibili zara iñoiz itxasoan? Ez, iñoizbez.—11. Sarritan joaten zarie Begoña'ra? Noizbait joaten gara baña ez askotan.—12. Iñun saltzen (saldu-ten) dabe emen orrelako olloak? Ez, emen ez dabe iñun saltzen.—13. Nork ikusi dau? Nik ez, baña norbaitek ikusi dau.—14. Iñoiz egon zara erri orretan? Ez, iñoizbez, baña noizbait joango naz.—15. Intxaurren azalak latzak ta gogorrak dira; sagarranerak, ostera, ez dira latzak, oso bigunak baño.—16. Iñork ikusi dau nire txakurra? Iñokbez.—17. Zure txakurra iñun ez dago.—18. Nirea, ostera, nunbait dago.—19. Nun ipiñi dozu zure txapela? Iñunbez. Ez dot txapelarik ekarri.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | | | | | |
|-------|----------|------|-------|--------|---------|--------|-------|-------|----------|------|
| ezer | ekar(ri) | ten | dot | itxaso | an? | ez, ez | dot | ezer | ekar(ri) | ten |
| iñor | sal(du) | ko | dozu | etxe | etan? | | dozu | iñor | sal(du) | ko |
| iñoiz | ikas(i) | go | dau | mendi | tik? | | dau | iñoiz | ikas(i) | go |
| iñun | jaki(n) | tzen | dogu | bide | etatik? | | dogu | iñun | jaki(n) | tzen |
| | entzu(n) | | dozue | zubi | ra? | | dozue | | entzu(n) | |
| | eros(i) | | dabe | erri | etara? | | dabe | | eros(i) | |
| | ar(tu) | | | | | | | | ar(tu) | |
| | ikus(i) | | | | | | | | ikus(i) | |

Ejemplo: Ezer artu dozue mendian? Ez, ez dogu ezer artu.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. *¿Has visto a alguien en el pueblo? No, no he visto a nadie.—2. No he visto a nadie por el camino.—3. ¿Sabrá Juanito alguna vez la lección en la escuela? Alguna vez la sabrá.—4. No oímos nada desde aquí. ¿Oís vosotros algo? No, nada.—5. Aquí nadie sabe nada pero pronto sabremos algo.—6. ¿Se ha caído alguien al río? No, no se ha caído nadie.*

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. *De aquí no se ven aquellos árboles.—2. ¿Se comen estas frutas? Sí, señor, estas frutas se comen; son muy ricas (dulces).—3. Ayer por la mañana, en la calle, no se vendían frutas.—4. Yo, en mi casa, comía ciruelas a diario.—5. Tú, el otro día, viste tres fresnos en el monte.—6. Mañana a la tarde Begoña comprará dos vestidos en Bilbao.—7. Nosotros todas las mañanas cogíamos fresas en la huerta.—8. Vosotros oísteis unas canciones en nuestra calle.—9. Ellos solían tener nueces en su casa.—10. Arantza, ¿trajiste cerezas de la huerta? Sí, señor, ayer a la tarde traje cerezas y nueces.—11. ¿Quién llevaba semanalmente avellanas a casa del tío? Las llevábamos nosotros.—12. Iñaki solía saber todas las lecciones.—13. ¿Cuántas lecciones supisteis vosotros? Nosotros supimos veintitrés lecciones.—14. Comíamos fresas.—15. Pusieron unos fresnos jóvenes junto a la fuente.—16. El pellejo de algunas frutas suele ser áspero y no se come, pero las fresas no tienen pellejo.—17. Sin embargo, las avellanas suelen tener dos pellejos; uno delgado, dentro; el segundo muy duro encima.—18. Alrededor, vi también otros muchos árboles frutales: manzanos, perales, ciruelos y cerezos, sobre todo.*

b) Traducir al castellano:

1. *Malluki asko ikusten dira mendiko bideetan.—2. Zugatze-tatik artuten da igalia.—3. Biar erriko plazan, kerexa asko salduko dira.—4. Ortuán ez ziran sagarrak ikusten.—5. Pago eta arte areik aundi ta ederrak ziran.—6. Etxe barruan mutil batzuk dagoz.*

IZTEGIA

— Vocabulario —

irakurri leer
izotz (lei) helada, hielo
edur (elur) nieve
txingor (kaskabar) granizo
eguraldi tiempo (atmosférico)
liburu libro
pelota pelota
lora (lore) flor
tontor (gallur) cima
urruno siguiente
ederto (ederki) muy bien
batzutan algunas veces
bear bada (agian) acaso, quizá
errez fácil, fácilmente
beraz por consiguiente
...n que (relativo)

36^o gn. IKASKAIA

OARRAK - — Vocabulario —

● El pronombre relativo «*que*» (el cual, la cual, etc.) se traduce en euskera por el sufijo «*n*» añadido al verbo auxiliar, o al principal si éste se conjuga en forma simple o sintética. La frase se construye de la siguiente manera:

ikusi dozun gizona el hombre que has visto

datorren igandean (en) el domingo que viene

joan dan egunean (en) el día que ha ido

● Si el verbo termina en **n**, permanece invariable y solamente la forma de la frase revela la existencia del pronombre:

jausi zan gizona el hombre que cayó

● Si termina en consonante, delante de la **n** se pone una «*a*» o una «*e*».

erosi dodan pelotea la pelota que he comprado

datorren barikua el viernes próximo (que viene)

En el primer caso la «*t*» de «*dot*» se ha convertido en «*d*» y hemos añadido una «*a*», y en el segundo se duplica la «*r*» de «*dator*» y se añade una «*e*».

● Para expresar el tiempo (atmosférico) que «*hace*» se dice con frecuencia que «*es*».

eguraldi txarra izan zan hizo (fue) mal tiempo

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1.—Etorri dan mutilla.—2. Ikusten dozun mendi areik aundiak dira.—3. Gaur ikasi dogun ikaskaia oso erreza da.—4. Artu eban lorea oso ederra da.—5. Atzo irakurri genduan liburua oso polita da.—6. Nik erosi dodan pelotea bizi-bizia da.—7. Ekarri daun olloa txikia da.—8. Datorren barikua lenengo barikua da.—9. Jaten dozun sagar orreik gozoak dira? Bai jauna, jaten dodan sa-

gar oneik guztiz gozoak dira.—10. Nor da mendira doan gizon a? Mendira doan gizon a, gure irakaslea da.—11. Or datorren gizon ori.—12. Joan dan igandean eguraldi txarra izan zan, eta orregaitik ez giñan ondartzara joan.—13. Datorren igandean, bear bada, lagun bategaz urtengo dot eta itxas-bazterreko erri batzuk ikusiko dogu Bakio'tik Lekeitio'raño.—14. Eta urrengoan andik Zarautz'eraño.—15. Lengo astean mendi tontor guztiak zuri-zuri agertu ziran, ta emen aize otza ibilli zan.—16. Goiz batzutan izotz aundiak izan ziran.—17. Ta orain edurra ta txingorra; oraiu arte, beraz, negu latza ta gogorra dogu.—18. Zelan ibilli ziñien erri aretan? Ederto ibilli giñan an.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | | |
|--------|--------|----|----------|----|-------|----|-------|
| ikusi | dot(d) | n | edur | a | on | a | da |
| ekarri | dozu | an | izotz | ak | txar | ak | dira |
| eroan | dau | | txingor | | gozo | | zan |
| artu | dogu | | eguraldi | | gazi | | ziran |
| ikasi | dozue | | lora | | otz | | |
| jan | dabe | | sagar | | errez | | |
| egin | | | ikaskai | | zuri | | |

Ejemplo: Ikasi dozun ikaskaia erreza da.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. La manzana que he comido era muy buena.—2. El tiempo que ha hecho ha sido frío y malo.—3. Las flores que ha cogido Arantza en el monte son muy hermosas.—4. Este es el perro que viste ayer en casa de mi madre.—5. El año que viene iremos a tu casa.—6. Hemos comido la carne que trajiste ayer.

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. ¿Quién vive en esa casa? Ahí... El señor Burgoa.—2. ¿Y en esa otra? Los de ahí son recién venidos.—3. ¿Y aquí, vive alguien? Sí, vive alguien.—4. No, ahora no vive nadie.—5. ¿Qué hay encima de la mesa? Un queso.—6. No hay nada.—7. ¿Has estudiado algo en casa? No, nada.—8. Sí, algo he estudiado, pero poco.—9. ¿Cuándo estuviste en ese monte? El verano pasado.—10. ¿Has andado alguna vez en el mar? No, nunca.—11. ¿Soléis ir con frecuencia a Begoña? Solemos ir alguna vez, pero no muchas veces.—12. ¿Venden

aquí, en algún sitio, gallinas como ésas? No, aquí no las venden en ningún sitio.—13. ¿Quién lo ha visto? Yo no, pero alguien lo ha visto.—14. ¿Has estado alguna vez en ese pueblo? No, nunca, pero alguna vez ya iré.—15. Las cáscaras de las nueces son ásperas y duras; sin embargo, las de la manzana no son ásperas, sino muy blandas.—16. ¿Ha visto alguien mi perro? Nadie.—17. Tu perro no está en ningún sitio.—18. Sin embargo el mío está en algún sitio.—19. ¿Dónde has puesto tu boina? En ningún sitio. No he traído boina.

b) Traducir al castellano:

1. Iñor ikusi dozu errian? Ez, ez dot iñor ikusi.—2. Ez dot iñor ikusi bidetik.—3. Iñoiz ikaskaia jakingo dau Jontxu'k ikastolan? Noizbait jakingo dau.—4. Ez dogu ezer entzuten emetik. Ezer entzuten dozu? Ez, ezebez.—5. Emen iñork ezer ez dau jakiten baña laster zerbait jakingo dogu.—6. Iñor jausi da ibaian? Ez, ez da iñor jausi.

IZTEGIA

— Vocabulario —

| | |
|---------------------------|--------------------------------|
| diñot (diot) | <i>digo</i> |
| diñozu (diozu) | <i>dices</i> |
| diño (dio) | <i>dice</i> |
| diñogu (diogu) | <i>decimos</i> |
| diñozue (diozute) | <i>decís</i> |
| diño e (diote) | <i>dicen</i> |
| ebagi (ebaki) | <i>cortar,</i> <i>corte</i> |
| edan | <i>beber</i> |
| ondiño (oraindiño) | <i>to-</i> <i>davía</i> |
| egi | <i>verdad</i> |
| eur i (ebi) | <i>lluvia</i> |
| ...la | <i>que... (conj.)</i> |

37'gn. IKASKAIA

OARRAK - Observaciones

● También entre los transitivos hay algunos verbos, muy pocos, que se usan en presente sintético. «**Esan**» (*decir*), es uno de ellos, y las formas de presente son las que figuran en el vocabulario.

● El sufijo «**da**» añadido al auxiliar o forma simple o sintética, sirve para establecer la relación que existe entre dos oraciones de la misma frase. Equivale a «*que*» pero no debe confundirse con el relativo. Por ejemplo:

etorri dirala diño *dice que han venido*

En cambio:

etorri diran gizonak *los hombres que han venido*

● Si el verbo termina en «**n**», esta consonante desaparece al unirse el sufijo «**da**»: **joan zala (zan-la) esan dabe** = *han dicho que fue.*

● A veces delante del sufijo «**la**» es preciso intercalar una vocal eufónica, generalmente la «a», como en **jango dodala** (dot-a-la) **diño** dice que lo comeré
La «t» final, como es costumbre en estos casos se cambia en «d». **ez dauala** (dau-a-la) **egingo diño** dice que no lo hará

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. Entzuten dozula diñot.—2. Esan dabela diñozu.—3. Jango dodala diño.—4. Ikusten dozuela diñoagu.—5. Jausi dirala diño-zue.—6. Elduko dirala diñoie.—7. Egia zala entzun neban.—8. Len ona ziñala diñoagu.—9. Zer esan dozu? Gaur eguraldi ederra dagola diñot.—10. Biar euririk ez dauala egingo diñot.—11. Atzo Bilbo'ra joan nintzan.—12. Zer diñozu? Atzo Bilbo'ra joan nintzala.—13. Madari asko dagola entzun dot.—14. Ardao gozoa edaten dozula ikusten dot.—15. Etxera doala esan dau.—16. Biar urtengo dirala entzun dot.—17. Ondiño ez dala etorriko diño.—18. Laster ezkonduko zarala entzun neban.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | | |
|----------|------|--------|----------|-------|-----|----|---------|
| eguraldi | eder | a | artu | dot | (a) | la | diñot |
| liburu | txar | ak | jan | dozu | | | diñozu |
| madari | gozo | bat | egin | dau | | | diño |
| okaran | gazi | batzuk | irakurri | dogu | | | diñoagu |
| lora | | | ikusi | dozue | | | diñozue |
| ardau | | | ebagi | dabe | | | diñoie |
| | | | edan | | | | |

Ejemplo: Madari gozo bat jan dozula diño.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. Dicen que compraste un vestido.—2. ¿Qué has hecho ahí? ¿Dónde? ¿Aquí encima del ojo? No es nada; un pequeño corte.—3. Dice Juanito que ha visto muchas manzanas en el huerto.—4. He oído que tu padre ha venido ayer de París.—5. Dicen que este año las peras están muy dulces.—6. Dice la maestra que no has sabido la lección.

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. *El muchacho que ha venido.*—2. *Aquellos montes que veis son grandes.*—3. *La lección que hemos estudiado hoy es muy fácil.*—4. *La flor que cogió es muy hermosa.*—5. *El libro que leímos ayer es muy bonito.*—6. *La pelota que he comprado es muy viva.*—7. *La gallina que ha traído es pequeña.*—8. *El viernes próximo, es primer viernes.*—9. *Esas manzanas que comes ¿son dulces? Sí, señor, estas manzanas que como son muy dulces.*—10. *¿Quién es aquel hombre que va al monte? Aquel hombre que va al monte es nuestro profesor.*—11. *Ese hombre que viene ahí.*—12. *Hizo mal tiempo el domingo pasado, y por eso, no fuimos a la playa.*—13. *Quizá el próximo domingo saldré con un amigo y desde Baquio hasta Lequeitio veremos algunos pueblos costeros (de la orilla del mar).*—14. *Y el siguiente, de allí hasta Zarauz.*—15. *La semana pasada, todas las cumbres de los montes aparecieron muy blancas, y aquí hubo (anduvo) viento frío.*—16. *Algunas mañanas hubo grandes heladas.*—17. *Y ahora, nieve y granizo; por consiguiente hasta ahora el invierno tenemos áspero y duro.*—18. *¿Cómo anduvisteis en aquel pueblo? Anduvimos muy bien allí.*

b) Traducir al castellano:

1. *Jan dodan sagarra oso ona zan.*—2. *Izan dan eguraldia otza ta txarra izan da.*—3. *Arantza'k mendian artu dauan loreak oso ederrak dira.*—4. *Nire amaren etxean ikusi zenduan txakurra au da.*—5. *Datorren urtean zure etxera joango gara.*—6. *Atzo ekarri zenduan okelea jan dogu.*

IZTEGIA

— Vocabulario —

meza *misa*
jantoki *comedor*
artxo (bildots) *cerdero*
edozer *cualquier cosa*
edonor (edozein) *cualquiera*
edonoiz *cuando quiera*
edonuz *cualquier parte*
bardin (berdin) *igual*
...**tera** *a...*
...**nean** *cuando...*
...**tean** *al...*

38' gn. IKASKAIA

OARRAK - — Vocabulario —

- El sufijo «**nean**» que se añade a las formas auxiliares del verbo se puede traducir por «*cuando*». Así:
etorri nintzanean *cuando vine*
- El sufijo «**tean**» añadiendo al infinitivo se traduce por «*al...*».
etortean *al venir*
- El sufijo «**tera**» solamente se añade al infinitivo y equivale a «*a...*»
Por ejemplo:
mezea entzutera *a oír misa*

● Como ya vimos, cuando algún nombre, o pronombre, hace de sujeto de verbo transitivo en una oración, aunque éste (el verbo) esté sobreentendido, dicha palabra debe llevar la «k» indicativa de su condición de sujeto.

nork diño ori? *¿Quién dice eso?*

ori... edonork *eso... cualquiera (se sobreentiende: lo dice)*

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

- Ikastolara etorri nintzanean nire adiskideak ikusi neban.—
- Bilbo'ra joan ziñanean, zer ikusi zenduan? Adiskide asko ikusi dot Bilbo'n.—
- Txikiak giñanean, Bermeo'ra joaten giñan.—
- Eguraldi txarra danean aize aundia ibiltzen da.—
- Goizeko amaietan Karmel'go eleizara joan giñan, Txomin ta biok, mezea entzuztera.—
- Gu jantokira joango gara arrain eta okela apur bat jatera.—
- Mendirantz noa, idiak eta artxoak ikuztera.—
- Nork diño ori? Ori... edonork.—
- Zer jango dozu? Edozer, bardin da.—
- Iñoiz ikusten dozu mutil erreik? Bai, edonoz ikusten dot.—
- Ikusi dozu etxe ori? Bai, orrelako etxeak edonun ikusten dira orain.—
- Ezer saldu dozu? Ez, ondiño ezebe.—
- Nor dabil or, ateostean? Nik ez dot iñor ikusten.—
- Bai, norbait bada-bil.—
- Durango'ra joatean meza edonun entzungo dot.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | | | | |
|----------|---------|----------|------|---------------|---------|---------|----------|---------|-------|
| atari | ra | etor(ri) | ten | nintzan(n)ean | igali | ak | euki | ten | neban |
| logela | an | joa(n) | tzen | ziñan | madari | batzuk | eroa(n) | zenduan | |
| jantoki | tik | ego(n) | zan | | sagar | aundiak | ekar(ri) | eban | |
| eskaratz | igo(n) | giñan | | | okaran | txikiak | ja(n) | genduan | |
| etxe | sar(tu) | ziñien | | | malluki | | ikus(i) | zenduen | |
| baserri | urte(n) | ziran | | | intxaur | | | eben | |

Ejemplo: Baserrian egon nintzanean intxaurrak jaten neban.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

- Quando venía del monte vi junto al río muchas ovejas.—
- Quando vino mi padre trajo algunas frutas.—
- ¿Qué llevaba Arantza cuando fue a las fiestas de su pueblo? Un bonito vestido.—
- Cogí muchas fresas al ir al caserío.—
- Quando salí de la casa hacía mucho frío.—
- Al volver también hacía frío.

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. Digo que lo cyes.—2. Dices que han dicho.—3. Dice que lo comeré.—
4. Decimos que veis.—5. Decís que han caído.—6. Dicen que llegarán.—
7. Oí que era verdad.—8. Decimos que antes eras bueno.—9. ¿Qué has dicho? Digo que hoy hace un tiempo hermoso.—10. Digo que mañana no lloverá.—11. Ayer fui a Bilbao.—12. ¿Qué dices? Que ayer fui a Bilbao.—13. He oído que hay muchas peras.—14. Veo que bebes vino dulce.—15. Ha dicho que va a casa.—16. He oído que mañana saldrán.—17. Dice que no vendrá todavía.—18. Oí que pronto te casarás.

a) Traducir al euskera:

1. Soñeko bat erosi zenduala diñoe.—2. Zer egin dozu or? Nun? Emen, begi ganean? Ez da ezer; ebagi txiki bat.—3. Ortuari sagar asko ikusi dauala diño Jontxu'k.—4. Zure aita Paris'tik atzo etorri dala entzun dot.—5. Urte onetan madari gozo-gozoak dagozala diñoe.—6. Irakasleak diño ez dozula ikaskaia jakin.

IZTEGIA

— Vocabulario —

| | |
|---------------------------|----------------------|
| dakit | sé |
| dakizu | sabes |
| daki | sabe |
| dakigu | sabemos |
| dakizue (dakizute) | sa- béis |
| dakie (dakite) | saben |
| bakarrik | sólo, solamen- te |
| denda (saltoki) | tienda |
| errot | molino |
| izkuntza (berbete) | idioma |
| euskeraz | en euskera |
| erderaz | en castellano |

39' gn. IKASKAIA

OARRAK - Observaciones

● **Daki, dakizu, daki,** etc., son las formas verbales del presente sintético del verbo «**jakin**»: *saber*; uno de los pocos transitivos usados en esta forma.

● Por tratarse de una forma sintética o simple, en las preguntas que se hagan con este tiempo se antepone la partícula «**ba**» exactamente igual que lo hicimos con las formas simples de «**izan**». Y esto vale para cualquier otra

ba-dakizu ikaskaia? ¿sabes la lección? e igualmente en la contestación si queremos resaltar el hecho de que *sí lo sabemos*.

bai, jauna, nik ba-dakit ikaskaia sí señor, yo (ya) sé la lección

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. Nik euskeraz ondo dakit.—2. Zuk ba-dakizu erderaz be.—3. Berak ez daki euskeraz, erderaz baño.—4. Guk euskeraz eta erderaz dakigu.—5. Zuek izkuntza bi ez dakizue; euskeraz bakarrrik.—6. Eurek izkuntza asko dakie; lau edo bost dakie.—7. Errotan egon zarala ba-dakit.—8. Okelea erosi nebala dendan ba-dakizu?—9. Arrain asko jaten genduala ez daki.—10. Laster etorriko zariela ba-dakigu.—11. Zure dendan egoten zarala ba-dakie.—12. Euskeraz asko ez dakit.—13. Iñaki zuen etxera joan dala ba-dakigu.—14. Errotara bidea ba-dakizu? Bai jauna, errotara bidea ba-dakit.—15. Ni logelan egon nazala ba-daki Begoña'k.—16. Nire aitaren logelea, zein da? Ori da.—17. Zuek jantokian egon zifiñela ba-dakie.—18. Nork daki ori? Orain arte, iñork ez daki ori.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | | | |
|----------|--------|-----|--------|-----------|----|---------|-----|-----|
| ba-dakit | okela | a | erosi | neba(n) | la | denda | (a) | n |
| dakizu | ogi | ak | ikusi | zendua(n) | | mendi | | an |
| daki | lora | bat | ekarri | eba(n) | | erri | | ra |
| dakigu | artxo | | eroan | gendua(n) | | baserri | | tik |
| dakizue | zaldi | | artu | zendue(n) | | etxe | | |
| dakie | errota | | | ebe(n) | | | | |

Ejemplo: Ba-dakizu errota bat ikusi nebala mendian.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. Sé que compraste un pan en el pueblo.—2. Sabemos que has estado en el caserío de tu padre.—3. Ignacio sabe que trajistéis un cordero del monte.—4. Tus padres no saben que viniste tarde a casa ayer.—5. He oído que cogiste muchas flores en el campo.—6. Nadie sabe que llevaste el caballo al molino.

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. Cuando vine a clase ví a mis amigos.—2. Cuando fuiste a Bilbao, ¿qué viste? En Bilbao he visto a muchos amigos.—3. Cuando éramos pequeños, íbamos a Bermeo.—4. Cuando hace mal tiempo, suele haber un gran viento.—5. A las once de la mañana, fuimos a la iglesia del Carmen, Chomin y yo (y

los dos) a oír misa.—6. *Nosotros iremos al comedor a comer un poco de pescado y carne.*—7. *Voy hacia el monte a ver los bueyes y corderos.*—8. *¿Quién dice eso? Eso... cualquiera.*—9. *¿Qué vas a comer? Cualquier cosa, es lo mismo.*—10. *¿Ves alguna vez a esos chicos? Sí, los veo cuando quiera.*—11. *¿Has visto esa casa? Sí, casas como esa ahora se ven en cualquier sitio.*—12. *¿Has vendido algo? No, todavía nada.*—13. *¿Quién anda ahí detrás de la puerta? Yo no veo a nadie.*—14. *Sí, alguien anda.*—15. *Al ir a Durango, la misa la oíré en cualquier parte.*

b) Traducir al castellano:

1. **Menditik etorten nintzanean ardi asko ikusi neban ibai ondoan.**—2. **Nire aita etorri zanean igali batzuk ekarri eban.**—3. **Zer eroaten eban Arantza'k bere erriko jaietara joan zanean? Soñeko polit bat.**—4. **Baserrira joatean malluki asko artu neban.**—5. **Etxetik urten nintzanean oso otza zan.**—6. **Itzultean be otza zan.**

IZTEGIA

— Vocabulario —

urdaí tocino
 urun (irin) harina
 papera (ingi) papel
 arkatz lápiz
 aizto cuchillo
 idatzi escribir
 ezin izan no poder
 beti siempre
 gosari (barauskarri) desayuno
 ezetz que no
 gexorik enfermo
 sarri frecuente
 txarto mal
 arritu admirar (se)
 miraritu admirar (se)
 ia casi
 zertarako? ¿para qué?
 ...teko para
 ...lako porque

40' gn. IKASKAIA

OARRAK - Observaciones

● El sufijo «**lako**» que se añade al verbo conjugado, con las modificaciones eufónicas precisas, sirve para unir dos oraciones, una de las cuales es causa o motivo de la otra.

zergaitik etorri zara? ¿porqué has venido?

nire ama emen bizi dalako etorri naz
he venido porque mi madre vive aquí

● El sufijo «**tako**» en cambio se añade al infinitivo y significa «*para*». Responde también a la pregunta «**zertarako?**»

zertarako ekarri dozu liburu ori?
¿para qué has traído ese libro?

biar goizean irakurteko *para leerlo mañana por la mañana*

● El verbo «poder» tiene un tratamiento muy especial en euskera. Simplificando al máximun, por el momento, diremos que se conjuga con el auxiliar «izan» pero formando un todo con él. Así «**al dot**» significa «puedo» y no «he podido», es decir, que la palabra «al» no es propiamente verbo sino sustantivo, por lo tanto podríamos traducirlo más bien por «tengo poder», equivalente a «puedo».

Esto sucede con varios otros verbos especiales como «bear izan», «uste izan», etc., que más tarde veremos. Pero este verbo tiene además la particularidad de que, en la forma negativa se emplea una palabra distinta que aparece en esta lección: «ezin» que podríamos traducir «no poder», así por ejemplo:

ezin dot gaztaia ebagi no puedo cortar el queso

En la forma afirmativa sería:

gaztaia ebagi al dot puedo cortar el queso

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. Nik ezin dot paperean idatzi.—2. Zergaitik ez? Arkatzik ekarri ez dodalako.—3. Ezin dot gaztaia ebagi.—4. Zergaitik ez? Aiztorik ekarri ez dodalako.—5. Ezetz diño, ez dala joango, ama gexorik dagolako.—6. Ez naz errira joan eguraldi txarra egin daturalako.—7. Gaurkoa txarto egin dozu ta guztiz arritu naz, ia beti ederto egiten dozulako.—8. Ez dot jakin zelan egin, egun orretan etorri ez nintzalako.—9. Ez nintzan etorri, izotz aundia izan zalako.—10. Eskaratzara urdaia eroan dau, gosaria egiteko.—11. Urun asko ekarri dot ogia egiteko.—12. Zertarako izaten da uruna? Ia beti ogia egiteko.—13. Lengo urteetan sarri joaten giñan erritxu orretara ta an aderto ibilli be ango adiskide batzuek, baña orain eurek Bilbo'n bizi dira ta orregaitik ez gara joaten.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | | | | | |
|-------|----------|-----|-------|-------|-------|----|------|---------|-------|----------|
| beti | ego(n) | ten | naz | nire | ama | a | emen | bizi | da | (a) lako |
| gaur | etor(ri) | ko | zara | zure | osaba | ak | or | il | dira | |
| orain | joa(n) | go | da | bere | seme | | an | gexorik | dago | |
| emen | igo(n) | | gara | gure | izeko | | | | dagoz | |
| or | | | zarie | zuen | alaba | | | | | |
| an | | | dira | euren | aita | | | | | |

Ejemp o: Gaur etorten gara gure osaba emen bizi dalako.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. *Ahora estoy aquí porque mi padre está enfermo.—2. Siempre suele venir a casa porque aquí vive su madre.—3. Hoy irá a Bermeo porque ha muerto allí un amigo suyo.—4. ¿Para qué has traído ese libro? Para leer un poco por el camino.—5. ¿Porqué has llevado el perro? Porque lo ha dicho el padre.—6. ¿Para qué llevas ese lápiz? Para escribir.*

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes guipuzcoanas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. *Yo sé bien en vascuence (el vascuence).—2. Tú también sabes en castellano (el castellano).—3. El no sabe en vascuence (el vascuence), sino en castellano (el castellano).—4. Nosotros sabemos en vascuence y en castellano.—5. Vosotros no sabéis dos lenguas: sólo en vascuence.—6. Ellos saben muchas lenguas; saben cuatro o cinco.—7. Ya sé que has estado en el molino.—8. ¿Ya sabes que compré carne en la tienda?—9. No sabe que comíamos mucho pescado.—10. Ya sabemos que pronto vendréis.—11. Ya saben que sueles estar en tu tienda.—12. No sé mucho en vascuence.—13. Ya sabemos que Iñaki ha ido a vuestra casa.—14. ¿Sabes el camino para el molino? Sí, señor, ya sé el camino para el molino.—15. Begoña ya sabe que yo he estado en el dormitorio.—16. ¿Cuál es el dormitorio de mi padre? Ese es.—17. Ya saben que vosotros estuvisteis en el comedor.—18. ¿Quién sabe eso? Hasta ahora nadie sabe eso.*

b) Traducir al castellano:

1. *Ba-dakit ogi bat erosi zenduala errian.—2. Ba-dakigu zure aitaren baserrian egon zarala.—3. Ba-daki Iñaki'k artxo bat eka-rri zenduela menditik.—4. Atzo berandu etorri ziñala ez dakie zure gurasoak.—5. Lore asko artu zenduala mendian entzun dot.—6. Iñork ez daki zaldia eroan zenduala errotara.*

— Vocabulario —

daukat *tengo*
daukazu *tienes*
dauka *tiene*
daukagu *tenemos*
daukazue (*daukazute*)
 tenéis
daukie (*daukate*) *tienen*
larregi (*-geiegi*) *dema-*
 siado
 → **lako** *como*
legor (*idor*) *seco*
ugari *abundante*
urri *escaso*
bildur *miedo*
atz *dedo*
 ...**ago** *más*
 ...**ena** *el más*
 ...**egi** *demasiado*

41^o gn. IKASKAIA

OARRAK - Observaciones

● El presente sintético de «**euki**»: *tener*, se emplea preferentemente para expresar una posesión material, aunque hoy, sobre todo en Vizcaya, tiende a usarse con carácter más general.

mai bat daukat *tengo una mesa*

● Añadiendo al adjetivo los sufijos: «**ago**», «**ena**» o «**egi**» se puede indicar diversos grados de la cualidad que el mismo expresa.

zuri *blanco*

zuriago *más blanco*

zuriena *el más blanco*

zuriegi *demasiado blanco*

● Obsérvese: «**nebarrebak**», hermanos en el sentido de hermanos y hermanas.

● La palabra «**lako**» (como) se coloca siempre detrás de la palabra que determina:

Nerea lakoa *como la mía*

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. **Buru bat daukat.**—2. **Amar atz daukat.**—3. **Artxo bat daukazu.**—4. **Arrain asko daukazue.**—5. **Liburu bat dauka.**—6. **Sei liburu dauka.**—7. **Guk ardi bat daukagu.**—8. **Bei bi daukagu.**—9. **Ogei ta bost ollo daukazu.**—10. **Lizar bat daukie euren baserrian.**—11. **Ur asko daukie.**—12. **Guriago...**—13. **Legorrago...**—14. **Urriago...**—15. **Ugariago...**—16. **Nire etxea zuriagoa da.**—17. **Zure txakurra baltzagoa da.**—18. **Zuen ardiak ederrenak dira.**—19. **Iñaki da gazteena.**—20. **Niretzat au da politena.**—21. **Beste ori illunegia da.**—22. **Txikiegiak dira mai arek.**—23. **Ardao larregi edan eben.**—24. **Bost nebarreba dira; Maite da txikiena ta Iñaki zarrena.**

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | |
|-------|------|--------|---------|---------|---------|------|
| nik | iru | ogi | a | daukat | etxe | an |
| zuek | amar | ardao | ak | daukazu | baserri | etan |
| berak | ogei | okela | bat | dauka | ortu | |
| guk | | sagar | bi | daukagu | baso | |
| zuek | | madari | ugari | daukazu | | |
| eurek | | bildur | urri | daukie | | |
| | | | larregi | | | |

Ejemplo: Berak ardao ugari dauka baserrian.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. El segundo, en cambio, es más pequeño y más gordo.—2. Esta casa es bonita, pero demasiado pequeña para nosotros.—3. Hoy también hace calor, pero no demasiado; el de ayer fue mayor.—4. Tu madre no es como la nuestra, es más alegre.—5. ¿Qué tenéis en la frente? ¿Dónde, aquí? No es nada.—6. Ignacio no tiene miedo.

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. Yo no puedo escribir en el papel.—2. ¿Por qué no? Porque no he traído lápiz.—3. No puedo cortar el queso.—4. ¿Por qué no? Porque no he traído cuchillo.—5. Dice que no, que no irá porque la madre está enferma.—6. No he ido al pueblo porque ha hecho mal tiempo.—7. Lo de hoy lo has hecho mal, y estoy asombrado, porque casi siempre lo haces bien.—8. No he sabido cómo hacerlo, porque ese día no vine.—9. No vine porque hizo gran helada.—10. Ha llevado tocino a la cocina para hacer el desayuno.—11. He traído mucha harina para hacer pan.—12. ¿Para qué suele ser la harina? Casi siempre para hacer pan.—13. En los años anteriores solíamos ir frecuentemente a ese pueblecito, y allí lo pasábamos muy bien (muy bien andar, también) con unos amigos de allá, pero ahora ellos viven en Bilbao, y por eso no vamos.

b) Traducir al castellano:

1. Orain emen nago nire aita gexorik dagolako.—2. Beti etorten da etxera, bere ama emen bizi dalako.—3. Gaur joango da Bermeo'ra, bere adiskide bat an il dalako.—4. Zertarako ekarri dozu liburu ori? Bidean apur bat irakurteko.—5. Zergaitik eroan dozu txakurra? Aitak esan daualako.—6. Zertarako eroaten dozu arkatz ori? Idazteko.

| | |
|----------------------------|-----------------------|
| diru | <i>dinero</i> |
| atz | <i>dedo</i> |
| aurreko (lengo) | <i>anterior</i> |
| sagardao | <i>sidra</i> |
| igaz | <i>año pasado</i> |
| aurten | <i>este año</i> |
| garesti | <i>caro</i> |
| aren | <i>de él, de ella</i> |
| geiago | <i>más</i> |
| gitxiago (gutxiago) | <i>menos</i> |
| ...ago | <i>más</i> |

42' gn. IKASKAIA

OARRAK - Observaciones

● El comparativo se forma en euskera de dos maneras:

a) Si se comparan cualidades se añade a la palabra que expresa la cualidad el sufijo «**ago**» y delante se pone «**baño**», de la forma siguiente:

zure etxea nirea baño politagoa da tu casa es más bonita que la mía

● Si el comparativo es de cantidad, en lugar del sufijo «**ago**» se ponen las palabras «**geiago**» o «**gitxiago**». Así:

zuk baño diru geiago daukat tengo más dinero que tú

nik baño diru gitxiago daukazu tienes menos dinero que yo

● Aunque en la práctica usemos el pronombre personal «bera» para traducir el de tercera persona «él o ella», éste en realidad no es sino la forma intensiva del demostrativo «a» aquel (ber-a), y muchas veces en euskera se emplea en esta forma simple «a» en lugar de «bera». Así:

Aren begiak, se traduce por: sus ojos (de él), o si se quiere los ojos de aquel.

I.—IRAKURRI TA ERDERATU - Leer y traducir al castellano:

1. Zu baño lodiago nago.—2. Ni baño aundiago da.—3. Zurea baño baltzagoa da.—4. Kale au gurea baño zabalagoa da.—5. Mutil ori lñaki baño luzeagoa da.—6. Madariak sagarrak baño garestiago ziran atzo.—7. Miren txikiagoa da, baña zarragoa.—8. Ikatza baño baltzagoak ziran aren begiak.—9. Uda au igazkoa baño legorragoa izan da.—10. Guk baño diru geiago daukazu.—11. Gaur amazortzi gagoz; atzo gitxiago egon giñan.—12. la beti mutillak neskattillak baño gitxiago etorten dira.—13. Zuk baño sagar gitxiago daukagu.—14. Igaz be lenengo egunetan ogetamar baño geiago etorten ziran.—15. Gu eurek baño egun bi gitxiago egon giñan.—16. Aurreko bi urteetan sagardao gitxi egin eben, sagarra urri izan zalako, baña aurten ugari dator.—17. Ne-

guan, gabak egunak baño luzeagoak izaten dira.—18. Zer jango dozu? Edozer, bardin da.—19. Iñoiz egon zara itxaso zabalean? Bai, edonoiz joaten gara.

II.—ESAKUNTZAK EGIN - Hacer frases

| | | | | | | | | | |
|-------|---------|----|-------|----|------|-------|-----|----|------|
| nire | etxe | a | nire | a | baño | polit | ago | a | da |
| zure | baserri | ak | zure | ak | | eder | | ak | dira |
| bere | erri | | bere | | | aundi | | | |
| gure | baso | | gure | | | txiki | | | |
| zuen | bide | | zuen | | | zabal | | | |
| euren | ibai | | euren | | | luze | | | |

Ejemplo: Gure basoak zuenak baño ederragoak dira.

III.—EUSKERATU - Traducir al euskera:

1. *Vuestro padre tiene hermosos libros.*—2. *El aire del monte es bueno.*—
3. *¿Quién tiene mi libro? Lo tiene Antón.*—4. *¿Que tienes ahí, en la mano? Tengo mi boina.*—5. *No tenemos demasiados libros.*—6. *En las dos manos tenemos diez dedos.*

IV. - Repetir estos ejercicios usando las variantes indicadas.

REPASO

a) Traducir al euskera:

1. *Tengo una cabeza.*—2. *Tengo diez dedos.*—3. *Tienes un cordero.*—4. *Tenéis muchos peces.*—5. *Tiene un libro.*—6. *Tiene seis libros.*—7. *nosotros tenemos una oveja.*—8. *Tenemos dos vacas.*—9. *Tienes veinticinco gallinas.*—10. *En su caserío tienen un fresno.*—11. *Tienen mucha agua.*—12. *Más rollizo...*—13. *Más seco.*—14. *Más escaso...*—15. *Más abundante...*—16. *Mi casa es más blanca.*—17. *Tu perro es más negro.*—18. *Vuestras ovejas, son las más hermosas.*—19. *Iñaki es el más joven.*—20. *Para mí lo más bonito es esto.*—21. *Ese otro es demasiado oscuro.*—22. *Aquellas mesas son demasiado pequeñas.*—23. *Bebieron demasiado vino.*—24. *Son cinco hermanos (hermanos y hermanas); la más pequeña (la menor) es Maite y el mayor Iñaki.*

b) Traducir al castellano:

1. *Bigarrena, ostera, txikiagoa ta lodiagoa da.*—2. *Etxe au polita da, baña guretzat txikiagia.*—3. *Gaur be, bero da, baña ez larregi; atzokoa aundiagoa izan zan.*—4. *Zure ama ez da gurea lakoa; alaiagoa da.*—5. *Bekokian zer daukazue? Nun? Emen? Ez da ezer.*—6. *Iñaki'k ez dau bildurrik.*

— Vocabulario —

egundo (sekula) *hasta ahora, jamás*

ain *tan*

astiro (geldiro) *despacio*

arin *aprisa*

geiena *la mayor parte*

orio (olio) *aceite*

garagardao *cerveza*

indartsu *fuerte*

janari *comida (alimento)*

edo *o*

berandu *tarde*

afari (apari) *cena*

bazkari *comida*

ainbeste *tanto*

baizen (bezain, bezin)

tan... como

beste *tanto... como*

errialde *comarca*

alde *lado, costado, parte*

oporretan *en vacaciones*

43' gn. IKASKAIA

OARRAK - Observaciones

«Tan» se traduce por «**ain**». Pero el comparativo de igualdad «*tan*»... «*como*» se forma anteponiendo la palabra «**baizen**» al adjetivo que expresa la cualidad, y ordenando la frase así:

zu baizen gazte naz *soy tan joven como tú*
- Txomin.* Akeitarik ez dot aspaldian artzen, baña gaur artuko dot.
- Elisa.* Bai, ta gero, gerokoak... Ez etorri gero nigana txarto zagozala esaten. Kalte egiten dauala jakin eta zertarako artu bear dozu?
- Txomin.* Apurtxu bat baño ez. Ain zoriontsu gara gaur etxe onetan!
- Maite.* (Amari) Zuk be artuko dozu, ez?
- Elisa.* Ez, nik akeitarik ez, baña esne utsa artuko dot; ekarri edontzi bat esne, bero-beroa...
- Maite.* Emengo esnea on-ona da: or goiko baserri batetik ekarten dabe*.
- Elisa.* Bai ondo bizi zariela emen! Ta etxe ederra daukazue ganera! Uri aundietako ke ta zaratakaz baño milla bider obeto zagoze...
- Txomin.* Ta, ganera, eguraldi ona euki dozue.
- Kepa.* Etorri giñanetik ez dogu euririk ikusi. Itzelezkoa!
- Txomin.* Alan da be, mendiak eta soloak itxura ona daukie, ez da legorterik ikusten.
- Iñaki.* (Kepa'ri) Osaba: an goiko baseleizean txori-abi bat dagola esan dau Mikel'ek. Utziko dozu* ni beragaz joaten?
- Kepa.* Nik bai. Zure amak lagatzen ba'dau*...
- Amaya.* Joan, gura ba'dozue, baña kontuz ibilli. Ez miñik artu.
- Iñaki.* Ez ama. Ta gero, onantz etortean, egur-pillo bat ekarriko dogu... Gero arte.
- Elisa.* Gure birseme orrentzat, beñipein, ez dago iñun ezer au baño oberik.
- Amaya.* Ta guretzat be, ez da au leku txarra.
- Elisa.* Ori esan ba... Leku baketsu ta atsegiña da, udea emoteko ezin obea.
- Kepa.* Datorren igandean Berriatu'ko jaiak dira. Gura ba'dozue, egun guztirako bertara joango gara.
- Idoya.* Bai, bai. Ni pozik joango naz. Jai politik izaten dirala esan dau Begoña'k.
- Kepa.* Goizean Meza Nagusi eder bat izango da, lenengo; gero aurrekuak, abeslariak eta bertsolariak; arratsaldean pelota-joko bi-kaiñak eta dantzari-talde onenak.
- Idoya.* Ta bazkaldu, nun egingo dogu?
- Kepa.* An bertan. Ezagutzen dot* ango ostatuak... eta batean ez ba'da bestean, emongo dabe* guri zeozer.
- Maite.* Orain, guk maia jaso ta tresnak garbitu bitartean, zoaze guztiak atartera, ta, gura ba'dozue, kartetan egin.
- Elisa.* Ori, ori!... Baña zuek be, etorri laster.

abeslari cantor
akeita café
alan da be aun así
asarre enfado
aspaldian hace tiempo
baketsu pacífico
barriketan charlando
baseleiza ermita
bertso verso
bertsolari trovador

bider vez
dantzari bailarín
gero gerokoak y luego
lo de luego (después lo
que pasa)
goi arriba
itzelezko magnífico
jaso levantar
joko juego
kalte daño, perjuicio

kartetan egin jugar a las
cartas
ke humo
kontuz con cuidado
ostatu posada
pillo montón
sukaldari cocinero
talde conjunto, grupo
tresna trastos
zorionsu dichoso

LAUGARREN IRAKURGAIA

Lectura 4.ª

ERRIKO JAIAK (Las fiestas del pueblo)

(Begoña ta Idoya, eleizatik urten ta gero, plaza-aldera doaz).

Begoña. Orain, bertsolariak asiko dira, euskaldunentzat jairik politena.
Idoya. Ori entzun dot askotan. Eta liburu batean auxe irakurri neban:

«Euskaldunentzat, bazkari on baten ostean, postrerik ederrena bertsolarietara entzutea dala».

Begoña. Bai, olantxe izaten da. Bertsolari onak diranean, entzuleak ez dira gogaituten.

Idoya. Meza nagusia be ederra izan da. Bai ondo abestuten dabela erri onetan! Eta erri osoak abestu be! Andra ta gizonak, neska ta mutillak, danak... Olan abestuten danean, atsegingarri izaten da.

Begoña. Erri au beti izan da kantaria. Bertoko abadeak ederto irakasten dau*, eleiz-abestiak... eta bestelakoak be. (*Mutil gazte bi aurrerazten dira*).

Koldo. Egunon, Begoña. Urrundik ikusi zaituet...

Begoña. Egunon, Koldo...

Koldo. Zelan emendik?... Noiz etorri zara?...

Begoña. Oraintxe...

Koldo. Ta lagun polit au, nor dozu?

Begoña. Nire lengusin bat: Idoya. Neugaz etorri da gaurko jai onek ikus-tera.

Koldo. (*Idoya'ri*) Askok poztuten naz. Gu markinañatarrak gara: au Xabier, ta ni, Koldo.

Idoya. Askok poztuten naz...

Koldo. Zure lengusiña aspaldian ezagutzen dogu. Ta zu, emen egongo zara egun batzuetan?

Idoya. Ez, laster joan bear dot barrero be Frantzi'ra. An egiten dot lana eta nire oporraldia laster amaituko da.

Koldo. Frantzi'ra? Bai ondo! Joango nintzake neu be. Ez dozu lagunik bear?

- Idoya.* Laster gogaituko ziñake an. Emen obeto bizi zarie. Au baño leku oberik ez dago.
- Begoña.* Ixi... danok. Zutundu dira bertsolariak eta oraintxe asiko dira abestuten. Goazen aurrerago, obeto entzuteko.
- Idoya.* Gazteak dira biak. Bertsolariak zarrak izaten zirala uste neban nik...
- Koldo.* Ba-dira orain gazte batzuk on-onak. Eskumaldean dagon ori, Bizkai'ko txapelduna da.
(*Bertsolariak abestu ta gero...*)
- Idoya.* Ederto egin dabe biak. Batek esaten ebanari, besteak polito erantzuten eban.* Buru argia euki bear da ba, olan asmatzeko.
- Koldo.* Eta arin ibilli bear ganera. Or ez dago astirik aurretik asmatzen ibilteko. Bat-batean emon bear da erantzuna, ta bertsoa ondo egiteko, asi baño lenago jakin bear dabe zelan amaitu.
- Idoya.* Bai, ori ikusi dot emen: entzuleak igarri egiten dabela bertsoaren azkena. Orain ulertzen dot zergaitik ez diran gogaituten...
- Begoña.* Orain, dantzariak ikusiko dogu.* Ondarru'ko dantzari-taldeak etorri dira: lenengo, txikiak egingo dabe, ta gero, nagusiak. Bizkai'ko talderik onenatarikoa da, ta sarritan irabazi dabe* sariak... Ara! Entzuten da txistu soñua...

Iztegia - Vocabulario

abade sacerdote
abestu cantar (verbo)
asmatu inventar, pensar
bat-batean al mismo tiempo

danak todos
entzuleak oyentes
eskuma derecha
irakatsi enseñar
ixil ¡silencio!

kantari cantor
oporraldi vacación
polito suavemente
soñu música, sonido
txapeldun campeón

BOSTGARREN IRAKURGAIA

Lectura 5.ª

BAR BATEAN (En un bar)

- Xabier.* Artuko dogu zeozer edateko? Egarritu naz oraintxe: ordubete luzean egon gara or dantzak ikusten, eta eguzkitan egon be!
- Idoya.* Alan da be, ni poz-pez egon naz. Dantzari bikaiñak dira ondarrutar orreik. Ta azkeneko dantza ori, ez neban iñoiz ikusi gaur arte. Oso polita da.
- Koldo.* Asmo ona euki dozu, Xabier. Goazen barrura, zeozer edatera.
- Serbit.* Zer artuko dozue?
- Xabier.* Nik zuri bat; (*neskatilei*) Zuek, zer gura dozue?
- Begoña.* Niri tonika bat atara.
- Idoya.* Niri, bermut-erdi bat seltzagaz.
- Koldo.* Niri, beste zuri bat.
- Serbit.* Orduan, zuri bi, tonika bat eta bermut-erdi bat.

- Xabier.* Bai, ta atara orio-garaun batzuk, azurbakoak.
Serbit. Oraintxe nator.
Koldo. Gelditu barik dabil jendea edategi guztietan, sartu ta urten. Lagun asko batu da gaur erri onetan.
- Begoña.* Bai, eguraldi ederra dago ta, albo-erri guztietatik etorri da jendea.
Xabier. Ondarru ta Markiña'ko gaztedi osoa emen dabil.
Idoya. Ta ain gazte ez diran gizonak be asko ikusten dot.*
Koldo. Orreik, geienak, pelota-jokoak ikustera etorri dira.
Idoya. Zer ordutan izango dira?
Koldo. Jokaldi bi dira: lenengoa bostetan asiko da. Bigarrena ez da ain ona, baña lenengoan gaurko pelotaririk onenak jokatu dabe. Alde batetik, napartarrak; bestetik, bizkaitarrak.
- Idoya.* Ta nortzuk irabaziko ete dabe?
Koldo. Ez da errez esaten. Azken-aldi onetan, napartarrak dabiltz nagusi. Gogor jotzen dabe biak, bai aurrelariak eta bai atzelariak.
- Xabier.* Baña gaur ez dakit ba... Bizkaitarrak emen alegiñak egingo dabe* irabazteko.
- Begoña.* Emengoen alde jokatu dozu orduan?
Xabier. Ez, ori ez. Nik ez dot inoiz dirurik jokatzen pelota-lekuetan. Ez da nireztat atsegiña.
- Idoya.* Ondo egiten dozu. Jokotik ez dator gauza onik. Nire aitaren lagun batzuk jokalaria amorratuak dira, ta ba-dakit gero zer jatzoten dan. Nik ez dot nire etxean orrelakorik ikusi gura...
- Koldo.* Goazen barrero plaza-aldera, ta an artuko dogu beste zeozer.
Xabier. (Serbitzariari) Zenbat da?
Serbit. Lau... zortzi... amairu... ogetazortzi peseta dana.
Koldo. Kendu, nik ordainduko dot.
Xabier. Ez, txanda au neurea da. Nik eskeñi dot.
Koldo. Ondo dago: orduan, urrengo txandan, neu.

Iztegia - Vocabulario

alan da be aün así
 alde a favor de
 alde batetik por un lado
 alegin posible
 amorratu rabiari
 atara sacar
 atzelari zaguero
 aurrelari delantero
 azkenaldi últimamente

azurbakoak sin hueso
 batu reunir, recoger
 bestetik por otro lado
 egarritu tener sed
 emengoen alde por los
 de aquí
 erdi medio, centro
 eskeñi ofrenda invitación
 gaztedi juventud

jende gente
 jokalaria jugador
 jokatu jugar
 neskatilla muchacha
 orio-garaun aceituna
 oso todo
 serbitzari camarero
 ...tar natural de...
 txanda turno

MENDIAN IBILLALDI BAT (un paseo en el monte)

- Begoña.** Gaur eguraldi ederra izango dala uste dot. Orain lañopean gagoz, baña apur bat gorago elduten garanean, eguzkia ikusiko dogu. Bai, egun ederra dakar gaur...
- Koldo.** Ni bildur naz bero larregi izango dogula. An goian kerizperik ez dago, eta eguzkiak erre egingo gaitu.
- Begoña.** Ez da orrenbestera izango: tontorrean, ganera, beti izaten da aizea.
- Xabier.** Astiro igon bear dogu, ni aspaldian ez naz mendian ibilli ta...
Idoya. Ni gitxiago. An ez gara iñoiz mendira joaten. Astean bein izaten dogu jai ta... ba-dakizue zer egiten dodan? Eguerdi arte, lo. Oso nekatuta egoten naz, eta lo-zorretan beti.
- Begoña.** Ni, ostera, jai-egun geienetan joaten naz mendira. Batzutan goizerako bakarrik; baña noizean bein egun guztirako.
- Xabier.** Neu, be, emen biziko ba'nintz, mendizale-talde batean sartuko nintzake, batera ta bestera joan eta gure erriko mendi guztiak ezagutzeko.
- Begoña.** Orra! Nik esan dodan lez, asi da eguzkia odeiaratean agertzen. Aupa! Au dogu, au, eguraldixua!
(*Andik ordubetera edo...*)
- Idoya.** Koldo ez da agiri. Atzean geratu ete da?
- Begoña.** Ez, aurrea artu dau. Beko bidekurutzean ezkerreko bidetik joan da, eta andik laburrago igoten da. Laster agertuko da bizkar aretan.
- Xabier.** Bai, iturri bat dagola esan dau eta an egongo dala guri itxaroten.
Idoya. Iturri bat? Bai ondo! Egarritu naz oraintxe, eta ekarri dogun kopautxua jateko be, ederto etorriko da guretzat ur-zurrutada bat.
- Begoña.** Baña kontuz ibilli. Edan baño len, eskuak eta eskuturrak ondo busti bear dozu* uretan. Ango ura otz-otza izaten da ta, zagozan lez izerditan edaten ba'dozu, kalte egingo dau* zuri.
- Xabier.** Ba-da kerizperik an inguruan?
- Begoña.** Iturria atx batzuen artean dago, ta arri arek kerizpe apur bat egiten dabe.
- Idoya.** Nik gurago dot eguzkitan egon. Burua estalduko dot, baña anka ta besoak baltzitu egin gura dot*.
- Xabier.** Baltzitu ez dakit baña gaurko beroak gorritu egingo dau.
Koldo. (*Iturrian*) Ba-dira amar miñutu eldu nazala. Astiro etorri zarie...
Begoña. Oneik ezin dabe gure antzera ibilli. Ni etorriko nintzan ariñago.
Idoya. Astiro, baña eldu gara. Ordua izan da; ezin neban geiago... Ura edateko pozak emon dau* niri adore aurrera jarraitzeko.

- Begoña.** Jesarri emen ldoya, arri onetan, ta zuek atsedan artu bitartean ni orko pagadi orretan perretxikurik ete dagon ikustera noa.
- Begoña.** Ez dozu bat be aurkituko. Aita ta biok sarritan joaten gara perretxiko billa baña oso gitxi dago. Euririk ez dau egiten eta lurra legor dago.
- Koldo.** Alegiñak egingo dot.* Baietz zeozer ekarri! Gero arte; ordu-erdi baño len emen izango naz barriro.

Iztegia - Vocabulario

| | | |
|---------------------|-----------------------|-----------------------|
| antzera semejante | busti mojar | kopau bocado |
| artean entre | eskutur muñeca (mano) | kurutze cruz |
| atseden descanso | estaldu cubrir | lo-zor sueño atrasado |
| atx roca, peña | ezker izquierda | odei nube |
| atzean detrás | gora a arriba | orrenbeste tanto como |
| aurre delante | gorritu enrojecer | eso |
| baltzitu ennegrecer | gurago izan preferir | pagadi hayedo |
| bein una vez | izerdi sudor | ...pean debajo de |
| bidekurutze cruce | kerizpe sombra | perretxiko seta |
| bizkar loma | | |

au dogu au eguraldixua ¡Qué tiempesito tenemos!
ete dagon ikustera noa voy a ver si hay

ZAZPIGARREN IRAKURGAIA

Lectura 7.^a

MENDIAN IBILLALDI BAT (jarraipena)
(Un paseo en el monte) (continuación)

- Idoya.** Au zoriona! Ni ementxe biziko nintzake uda osoan...
- Begoña.** Bai, emen ederto egoten da orrelako eguraldi bikaiña danean, baña txarra egiten be ba-daki.
- Xabier.** Ta ez dakit gaur be, arratsalderako, ez ete dan txartuko. Beitu an, odei zuri aundi areik: olantxe asten dira ekatxak.
- Idoya.** Odei areik urrun dagoz. Ez dot uste gaur euria izango dala.
- Begoña.** Ba'da ez ba'da oba izango da lenbailen goraño igotea, ta arratsalde-erdirako errira jatsitea.
- Idoya.** Ba-daukazue ondiño beste okela zatiren bat? Pozik jango neuke, beste zurrutada bat egiteko.
- Xabier.** Artu gura dozun guztia. Nik ez dot geiago jan gura: naikoa dot.
- Begoña.** Or dator Koldo, ta nik esan dodan lez, ezer barik etorri be.
- Koldo.** Orrelakorik! Gelditu barik ibilli naz, gora ta bera, bazter guztiak arakatzen eta... ezebez! Orrelako leku ona perretxikuetarako ta... garaurik be ez. Txar bat edo beste ikusi dot, baña txarrak be gitxi.

- Xabier.** Guk egin dogu amarretakoa, ta orain ba-goaz gorantza.
Idoya. Sugerik ez dago emengo mendietan?
Koldo. Bai, izaten dira, baña ez asko. Ganera, geienak onak dira, ez galgarriak. Suge gorri gaiztoak oso gitxitan agertzen dira.
Idoya. Onak izan, txarrak izan, nik bat ikusiko ba'neu, bildurtuko nintzake, bai orixe.
Koldo. (*Tontorrean*) Emendik, Euskalerrri osoa ikusten dala esango neuke nik. Itxasaldea, batez be, zoragarri agiri da.
Begoña. Udazken-aldera ikuskizun ohea egoten da. Egoalde aretan lañoa sortu da, udako egun beroetan sarri jazoten dan lez.
Idoya. Zer da an zugatz artean agiri dan tellatu gorria? Artzain-txabolaren bat?
Begoña. Ez, eleizatxo zar bat. Pagoeta'ko Andra Mari'ren eleizatxoa. Urtean bein izaten da bertoko jai-eguna. Irailla'ren 8'an inguru-erri guztietatik igoten dira egun orretan, eta jai ederra egiten da. Emen ondo gagoz, baña... ikusi laño ori, zelan datorren onantza Apurka-apurka jatsiten asiko ba'giña, ondo egingo geunke.
Xabier. Emen ondo gagoz, baña... ikusi laño ori, zelan datorren onantza Apurka-apurka jatsiten asiko ba'giña, ondo egingo geunke.
Koldo. Bai, batu gauza guztiak eta asi gaitez an beerantza... Emen gagozanean euria ta lañoa sartuko ba'litz, txarto ibilliko giñake.
Idoya. Dana dala, egun ederra igaro dogu. Zorionsua izan naz benetan. Gauza asko ikusi ta ikasi dot.* Datorren udan, jaungoikoak gura ba'dau, sarritan egin bear dogu* orrelako ibillaldiak.

Iztegia - Vocabulario

| | | |
|-----------------------------|-------------------------------------|------------------------|
| agiri dan que se ve | galgarri pernicioso | jazoten dan lez como |
| artzain pastor | garau grano | suele suceder |
| ba'da ez ba'da por si acaso | garaurik be ez ni un grano siquiera | lenbailen cuanto antes |
| beitu mira (imp.) | ikuskizun panorama | olantxe así mismo |
| egoalde sur | irail setiembre | suge culebra |
| ekatx tempestad | jarraipen continuación | txartu empeorar |
| ezkero en caso de | | zoragarri fascinador |

ZORTZIGARREN IRAKURGAIA

Lectura 8.ª

EROSKETAN (De compras)

- Maite.** Biar eguaztena da, erri onetako azoka-eguna. Illean bein egiten da, bigarren eguaztenetan. Gura ba'dozu, alkarregaz jatsiko gara, erosketa batzuk egin bear dot,* eta...
Amaya. Pozik atan be. Eta gauzak era onean ikusten ba'dot,* nik be erosiko dot zeozer, Bilbo'ra eroateko.
Maite. Goizean-goiz joaten ba'gara, oba izango da. Gero lagun asko batzen da ta, geienetan, gauzak gorantza egiten dabe.

Amaya. Nai dozun orduan urtengo dogu.
Maite. Naikoa dogu emendik zazpiretan urtetea...

.....

Maite. (Azokan) Ikusten dozu, Amaya, zenbat erosle dabillen. Esan neban atzo, emen jendea goiztar izaten dala.

Amaya. Bai, arrituta nago. Zortzirak ez dira ondiño ta orrenbeste lagun ibiltea...

Maite. Asko, urietatik etorten da: Eibar'tik, Durango'tik, Bilbo'tik eta urrunagotik be.

Amaya. Baña orreik aundika erosiko dabe, ezta?

Maite. Bai, ostatu aundietarako erosketan ibiltzen dira, azokarik-azoka.

Amaya. Nik gatzai on bat erosi gura neuke: bat edo bi, bardin da. Gure lñaki'rentzat oso atsegiña da.

Maite. Gatzaiak eta orrelakoak beste alde aretan egoten dira. Goazen ikustera...

.....

Maite. (Saltoki batean) Egun on, Patxi. Lan asko?

Patxi. Alan ekarri... Emen gabiltz, tirriki-tarraka. Azoka-egunetan izaten dogu zeregiña, baña gero, ez dogu jende aundirik ikusten... Zeu be, ez ziñan aspaldian agertu.

Maite. Ez ba... Goi aretatik jatsiteko nagi izaten gara. Urte guztirako aize garbia artu nai izaten dogu, ta gure Kepa'ri beintzat ez esan kalera etorteko. Mendian eta errekatxuan, antxe dauka bere zoriona.

Patxi. Ta, zerk ekarri zaitue ba, onera?

Maite. Betikoa, Patxi. Nire seme orrek dana apurtuten dau... Praka urdin batzuk, alkondara bat eta abarketak bear dot.* Baña sendoak! Burdiñezkoak be apurtuko leuke* arek!

Patxi. Oraintsu artu dot* mutil gazteentzako praka barriak: oso onak ei dira. Eroan daben guztiak olan diñoen.

Maite. Ekarri ba, ikusteko. Luzeenak atara, gure mutil ori asko luzatu da, ta...

Patxi. Ona emen luzeenak. Luzeegi izan ezkeru, beste aldetik, barrenetik ebagi al dozu?

Maite. Zegan saltzen dozu.*?

Maite. Berreun ta larogei pesetan.

Maite. Ez dira merke-merkeak, baña ain onak ba'dira...

Patxi. Esango dozu urrengoan zatozanean.

Maite. Ipiñi dana batera, prakak, alkondarea ta abarketak. Zenbat jotzen dau kontu guztiak?

Patxi. Bosteun ta berrogeitamazortzi peseta. Ekarri bosteun ta... kitu.

Maite. Agur Patxi. Ondo bizi, ta ikusi arte.

abarketa alpargata
 alan ekarri así lo traigas
 alkondara camisa
 azoka mercado
 dabillen que anda
 ei dicen que...
 era manera, traza

era onean (en buena traza) de buena traza
 erosketa compra
 erosle comprador
 gai materia, asunto
 geienetan las más de veces
 goiztar madrugador

kontu cuenta
 nagí perezoso
 onak ei dira dicen que
 son buenos
 pozik atan be con mucho gusto
 praká pantalón
 saltoki tienda

BEDERATZIGARREN IRAKURGAIA

Lectura 9.ª

BASERRIKO ILLUNABARREAN (Atardecer en el caserío)

(Baserri aurreko zelaian jesarrita)

- Amaya.* Au aro ederra! Ez otzik, ez aizerik... gau osoa ementxe igaroteko gogoak emoten dau.*
- Kepa.* Bai, ordu onetan izaten da eguneko sasoirik ederrena, ixiltasuna nagusitzen danean.
- Amaya.* Eta zeruan izarrak agertzen asten diranean.
- Kepa.* Eguzkia mendi aren ostean ezkutatu danean, «Illunabarra» abestia etorri da nire burura. Euskal-abesti asko dira politak, baña niretzat orixe da ederrena.
- Amaya.* Ederrenetakoa bai beintzat... Au bakea! Ta emen ain ondo egon ta alde egin bear... Emengo zorionari agur egin eta uriko bizimodu larri ta zaratatsuan sartu bear...
- Maite.* Ez joan ondiño. Geldi emen beste astebete geiago.
- Amaya.* Ba-dakizu eziña dala. Idoya'k astelenean joan bear dau, ta nik be etxeko zeregiñak atondu bear dot.* Astindu eder bat emon bear dot* etxe guztiari.
- Iñaki.* Nik ez daukat ondiño ikastolara joan bearrik. Pozik geldituko nintzake emen Mikel'egaz.
- Mikel.* Bai, izeko. Iñaki emen gelditzen ba'da, niretzat be askoz obeto. Alkarregaz ibiltzen oitu gara, ta orain bakarrik gogaitu egingo nintzake.
- Kepa.* Nik ondo deritxot, Amaya. Zuek joan bear ba'dozue, utzi emen mutilla: lan bat gitxiago zuentzat, eta guretzat mesede aundia.
- Iñaki.* Bai, ama. Ondiño illabete baño geiago daukagu ikastolara asi baño len, ta emen milla bider obeto nago kalean baño.
- Amaya.* Gelditu ba, nai ba'dozu. Baña ona izan, eta ez neke larregi emon zure izekoari... Zelan eskertuko dogu, Maite, gugaitik egiten dozun guztia?

- Maite.** Ez orrelakorik esan, Amaya. Poz-pozik egiten dot dana. Ganera, geu gagoz zorretan, guri lagun egitera etorri zarielako, eta gurasoak ekarri dozulako.*
- Amaya.** Eurek be zoriontsu izan dira emen egun batzuetan. Aita, etorri zanean baño alaiago ikusten dot. Datorren astean osagilleagana joango gara, ta ikusiko dogu zer diñoan.
- Maite.** Ez dozu asti aundirik izango idazteko, baño al ba'dozu, bialdu zuen barriak. Iñaki'k be idatziko dau nozean bein, emengo goraberak azalduz.
- Kepa.** Orain, goazen barrura. Ia bederatziak dira ta ordua da apaltzeko.
- Amaya.** Bai, ta apal-ostean, ogera joan baño len, gure tresna guztiak gertu ipiñi bear dot,* biar arte utzi barik.
- Maite.** Ez estutu, Amaya. Neuk lagunduko dot* zuri eta bien artean beingoan atonduko dogu dana.

Iztegia - Vocabulario

aro tiempo
astinketa sacudida
astindu sacudir
atundu arreglar, disponer
beintzat al menos, por cierto
bizimodu modo de vivir

deritxot me parece
estutu apurarse
 ...**etariko** de entre los...
eziña imposible
gertu dispuesto
goraberak peripecias
illunabarra atardecer
izar estrella

mesede favor
nagusitu apoderarse
nozean bein de vez en cuando
oitu acostumbrar
zaratatsu ruidoso
zelai pradera
zorretan en deuda

AMARGARREN IRAKURGAIA

Lectura 10.ª

PERNANDO ETA BERE EMAZTEA (Fernando y su mujer)

Beñola, Pernando eta bere emaztea mendian bedarra ebagiten egozan. Alako batean, uso aundi-eder bat eldu zan euren ondora, odoletan, egazka egin-eziñaz. Pernando'k beingoan usoa artu ta bedar artean ezkutatu eban. Andik laster, jaun bat agertu zan, izerditan, usoaren billa. Eta Pernando ikustean, itaunka asi zan urrundik:

—Uso bat ikusi dozue?

—Orain amaikak, erantzun eban Pernando'k, oiuka.

Gizon arek, barriro, indar aundiagoaz:

—Ez dozue ikusi uso bat emendik?

—Ondiño amaika ta erdiak ez dira beñipein, Pernando'k ostera be.

Orduan, «gizon au burutik ez dago ondo» esanaz, joan egin zan.

Zortzi egun geroago jaun arek kalean aurkitu eban Pernando, ta barre egin guraz, ba-doa artez beragana:

—Zu, lagun, zer ordu da?

—Oso ona egoan. Nire emazteak eta biok jan genduan.

artez derechamente
barre egin reir
bedar hierba
beingoan al momento

beñipein al menos
beñola en cierta ocasión
egazka volando
egozan estaban

izerditan sudando
odoletan sangrando
ondora junto a...

AMAIKAGARREN IRAKURGAIA

Lectura 11.^a**TXOMIN ETA IÑAKI (Domingo e Ignacio)**

Iñaki ta Txomin 8 ta 7 urteko lagunak ziran.

Baña mutil onak izan-arren, nozean bein, augaitik edo besteagaitik, ba-ekien burrukan egiten...

Beñola, oi eben lez, alkarregaz etozan ikastolatik etxerantz. Alako batean, intxaur eder bat ikusi eban Iñaki'k bide bazterrean. Baña Txomin'ek ariñago joan eta beretzat artu eban. Orduan, gogor asi ziran burrukan, biak intxaurra jan guraz. Alan ebiltzanean jaun bat etorri zan eurekana:

—Zer daukazue, olan bultzaka ta joka ibilteko?

Eta jazoten zana esan eben mutillak. Orduan, jaun arek, mutil biei entzun ta gero, intxaurrak artu, erditik idigi ta onetara amaitu eban burrukea:

—Intxaurraren azal-erdi au zuretzat, Iñaki, zuk lenengo ikusi dozulako; beste azal-erdi au zuretzat, Txomin, lurretik zuk jaso dozulako; eta intxaurra niretzat, aundiena ni nazalako.

bultza empujón
idigi abrir

burruka lucha

ekien sabían

AMABIGARREN IRAKURGAIA

Lectura 12.^a**DIRU-ZALE BAT ERREKARA JAUSTEN DA
(Cae un avaro al arroyo)**

Gizon diru-zale ta zeken bat erreka sakonera jausi zan beñola.

Andik bakarrik urtetea eziña zala ikusi ebanean, oiuka asi zan, estu ta larri.

Inguru aretatik ebillen jaun bat, deiak entzutean, urreratu zan, eta gizon bat uretan jausita ikusiaz...

—Emon niri zure eskua —esan eban, andik ataraten lagundu guraz.

Baña gizon a, esan dogun lez, guztiz zekena zan, eta ez eban iñoiz ezer emon gura izaten. Eta «eskua emoteko» entzun ebanean, besoa luzetu-bearrean beerago jatsi eban. Jaun arek ondo ezagutzen eban zekenaren geixoa, ta beingoan asmau eban zer egin.

—Artu nire eskua, —esan eban bigarreanean, eta orduan, bain, arin luzatu eban diruzale arek bere besoa, jaunaren eskua artzeko.

Iztegia - Vocabulario

| | | | | | |
|--------------|------------------|----------------|-----------------|-------------------|----------------|
| asmau nar | inventar, imagi- | bearrean de | en la necesidad | diruzale zeken | avaro avaro |
|--------------|------------------|----------------|-----------------|-------------------|----------------|

AMAIRUGARREN IRAKURGAIA

Lectura 13.ª

BARTOLO'REN ARROKERIA (La fanfarronería de Bartolo)

Bartolo mutil arro ta guzurtia zan. Beñola, bere adiskide Koldo'gaz basora joan zan. Baserri baten ondolik igarotean...

—Ene!, —esan eban Koldo'k, —orrek bai aza aundiak!

—Ori ez da ezer, —erantzun eban beingoan Bartolo'k. —Nik, bein batean, abadearen etxea baño aza aundiagoa ikusi neban.

Ez eban ezer esan Koldo'k, bere laguna ondo ezagutzen eban ta... Basotik errira biurtu ziranean, eleiz-aurrean geratu ziran. Alako baten, Koldo'k esan eban:

—Nire aitak, beñola, lapiko aundi-aundi bat egin eban, eleiza ori baño aundiagoa.

—Eziña da —erantzun eban Bartolo'k. Zertarako gura eban alako lapikoa?

—Zuk ikusi zenduan aza egosteko esan —eban barreka Koldo'k.

Iztegia - Vocabulario

| | | | | | |
|-------------------------|-----------------------------|----------------------|-----------|-------------------|------------------------|
| barreka arro rrón | riendo presumido, fanfa- | aza berza guzurti | mentiroso | lapiko ondotik | puchero por junto a |
|-------------------------|-----------------------------|----------------------|-----------|-------------------|------------------------|

AMALAugARREN IRAKURGAIA

Lectura 14.ª

**DOLLOR BATEN AUTORTZEA
(La confesión de un villano)**

Beñola, erririk erri ibiltzen zan lapur dollor bat joan autortzera. Guzar ta abar bere barru loa azaldub itartean, abadeari amar ogerleko atara eban* sakeletik polito-polito.

Batetik bestera, ara ta ona ibilliaz bizi zala esan ebanean* abadeari, onek, itxura txarra artuz, itaun au egin eban*:

—Ez dozu ezer ostu?

—Bai, jauna, amar ogerleko.

—Jaubeari emon bear dozu* ogerlekoak, bestela ez dot* parkarena emongo zuri.

—Zuk artu gura dozu, jauna, nire zor ori?

—Ez, nik ez. Emon jaubeari.

—Ta jaubeak gura ez ba'dau?

—Orduan zeuretzat gorde eizu.

Eta gizon dollor arek, esker aundiak emonda, alde egin eban.

Iztegia - Vocabulario

ta abar y etcétera

guzur mentira

polito bonitamente, suavemente

autor confesión

jaube dueño, amo

autortu confesar

dollor villano, ruín

parkamen perdón

AMABOSTGARREN IRAKURGAIA

Lectura 15.ª

SANTURTZE'RAKO GELTOKIAN

(En la estación para Santurce)

Ipuin barragarri au Bilbo'n jazo ei zan, orain urte gitxi.

Gau batean, ondo afaldu ta gero, iru mutil gazte Santurtze'rako geltokira joan ziran. Barrura sartu ta atean egoan gizonari itandu eben*:

—Zu, mesedez, noiz dogu Santurtze'ra joateko bultzia?

—Oraintxe joan da bat, amaiketan —esan eban atezañak—. Urren-goa amabitan izango da.

—Orduan ba-dogu astia —esan eben mutillak—, goazen bitartean zeozer edatera.

Eta olantxe egin eben. Inguruko ardandegi batera joan ziran.

Amabiak jo ta laster, geltokira biurtu ziran.

—Berandu zatoze —esan eban lengo atezañak—. Len esan dot* zuei amabitan zala. Orain, urren-goa, azkenekoa izango dozue, ordubatetan. Ori galtzen ba'dozue, ez daukazue besterik biar goiz arte.

—Ondo dago —esan eben mutillak, eta barrero ardandegirantz joan ziran astia emoteko.

Ordubata-ordubata zanean an datoz ariñeketan, estu ta larri, ardan-degitik geltokira, gure iru lagunak.

Euretariko bi, aurreratxuago etozan, eta ozta-ozta sartu al izan ziran bultzian, au atpatzen zan une berean. Irugarrenak, ostera, loditxua zan eta, ez eban atrapau. Eta bultziak iges egin ebala ikusiaz, lurretan etzunda, barre itzelak egiten asi zan, bultzia galtzea gauza barragarria ba'litz bezela.

Atezaiña, gutziz arrituta, urreratu zan beragana esanaz.

—Esan dot* zuei au zala gaurko azken bultzia Santurtze'ra joateko.

Baña mutil lodiak, barre ta barre, ezin eban itzik be esan. Apurtxu bat nasaitu zanean, onelan esan eban* atezaiñari:

—Ikusi dozu* bultzian sartu diran nire lagun biak?... Ba... orreik niri agur esatera bakarrik etorri dira. Santurtze'ra neuk bakarrik joan bear neban.

Iztegia - Vocabulario

| | | |
|----------------------------------|------------------------------------|--|
| abiatu echar a andar | atezain portero | geltoki estación |
| afaldu cenar | atrapau coger | iges egin escapar, huir |
| agur esan saludar, des- pedir | barragarri divertido, ri- sible | nasai holgado, cómodo |
| ardandegi taberna | bultzi tren | ozta-ozta justamente, a duras penas |
| arriñeketan corriendo | etzun tumbarse | une momento, intervalo |

amabiak jo ta laster en seguida de dar las doce (las doce dar y pronto)

barre itzelak risa estrepitosa

barre itzelak egin reirse estrepitosamente

jazo ei zan dicen que sucedió (Ei: dicen que)

AMASEIGARREN IRAKURGAIA

Lectura 16.ª

DEUN IZATEKO BIDEA (El camino de la santificación)

Basetxe batean ei egoan, antziña, eleizara iñoiz joaten ez zan mutil bat. Bere ugazabeak bialdu eban meza entzutera ta, eleiza nun aurkitzen zan ez ekian lez, esan eban* berari lagun asko sartuko zan etxe aundi batera joateko.

Jatsi zan, ba, kalera gure mutil ori, ta, eldu zanean ikusi eban eztegu aundi bat eleizatik etxerantz joiala. Gomutatu eban ugazabearen esana, batu zan ezteguaz eta sartu zan danakaz ezkon-barrien etxean.

Iñork be ez eban* berari ezer esan, senide edo auzokoren batek bera-gaz ekarri ebala ustez. Jarri zan maian eta ederto bete eban sabela ango jan-edari ugariakaz.

Pozik biurtu zan etxera ta aste guztia igaro eban bere ugazabeari itaunka ia igandea noiz etorren.

Ugazabeak erantzuten eban*:

—Mutil, etorriko da ba. Itxuraz, ondo ibilli ziñan, orrenbeste gurari daukazun ezkerro barriro be joateko.

—Bai ondo ibilli! Iño... Estu nago igandea eldu arte.

—Kristiñau guztiak orrelakoak izan bear leukie. Asko ta asko dagoz, mutil, mezatarako beti nagi aurkitzen diranak, beste gauzatarako bizkorak izaten dira baña.

—Ez naz ni, ba, orreitarikoa. A zan atsegiña nik euki nebana igandean! Eta jende nagia dagola ain gauza ederreraiko diñozu? Siñistu be ezin da.

—Mutil! Ori da, ori, kristiñautasuna! Joan, joan bide orretatik eta neuk diñot* zuri deun aundi bat izatera elduko zarala.

Larunbata gabean ames egin eban mutillak, okela zati, bisigu erre, ogi zuri, gaztai, pitxerkada ardao ta beste onelako gauzakaz.

Itzartu zanean, urten arin ogetik, ariñeketan jantzi ta bizkor kalerantz, ago guztia gozotuta, atsegiñez triskatzen.

Kalera eldu zanean entzun zan mezatarako azkenengo txilin-otsa ta agaitik ikusi eban jendea arin eleizarantz; berau be arin-arin joan ta sartu zan erdi ingururaño.

An gelditu zan begira alde guztietara, ta ikusi ebanean etorten ziran guztiak ur-bedeinkatu ontzian sartzen ebela euren eskua ta gero arpegira edo agora eroan, ariñeketa batean joan zan bera be, ta beso guztia sartuta ibilli zan ia zatiren bat aurkitzen eban, baña alperrik, an saldea baño besterik ez egoalako.

—Ederto jokatu dira nigaz! —esan eban agin artean.

Geratu zan, gero, bazter batean ixilik eta adi; ta itzaldia asi zanean alde egin eban gogait eginda.

Etixeratu zanean diño* ugazabeak:

—Ona emen gure kristiñau zintzo au, zintzorik ba'dago iñun!

Mutillak arpegi illunagaz:

—Gaur ederra emon dabe* niri!

—Zer ba? Jo egin zaitue, ala? Ta, zergaitik? Mezatarara joateagaitik? Zorioneko zara, gauza deunagaitik nekeak igaroten asi zaran ezkerero. Esan neban nik deun aundi bat izango ziñala, jarraitzen ba'zendum asitako bideari, ta zelan izan da?

—Berandutxu eldu naz gaur, bai, ta saldea baño besterik ez dabe utzi niretzat. Itxaron dot gero apur batean, baña... ezebez. An aurrean iru gizon, saku antzeko gauza batzuekaz jantzita, ibilli ta ibilli, batera ta bestera, nik ez dakit zer egiten; beste bat, ostera, sapai ganean iru milla txilibitu joten; alkarri deadar bat nozean bein egiten izan dabe, ulertu ezin zan eraz; geroago igon da beste bat ontzi aundi baten ganera ta asi da agiraka ta deadar egiten guztiz asarre.

—Auxe ikusi dodanean, «nik ez dot ezer artu ta zergaitik entzun bear dot* ba orrelako demoniñokeriak. —esanda, alde egin dot?» Urrangoan ez naz azkenen joango.

adi atento
 agiraka reprensión
 alperrik inútilmente
 antziña antaño
 asiera el principio
 basetxe caserío
 bedeinkatu bendecir
 bisigu besugo
 demoniñokeri diablura
 deun santo
 esana lo dicho, el dicho
 eraz de manera que
 etxeratu ir, o volver a casa
 ...n ezkeru puesto que

ezkonbarri recién casa-
 do
 eztegu boda (cortejo)
 gomutatu recordar
 gurari anhelo, deseo
 itxuraz al parecer
 itzaldi discurso
 itzartu despertar(se)
 jokatu jugar
 kristiñau cristiano
 onelako como este
 orreitarikoa de entre
 esos
 orrenbeste tanto como
 eso

...rako para
 sabel vientre, tripa
 salda salsa, caldo
 senide pariente
 siñistu creer
 triskatu saltar
 txilibitu silbo
 txilin campana
 txilin-ots campanada
 zorioneko feliz, dichoso
 ur-bedeinkatu agua ben-
 dita
 urrengoan la próxima
 vez

ei egoan dicen que había
 eleizara iñoiz joaten ez zan mutil bat un muchacho que no iba nunca a la iglesia
 orrenbeste gurari daukazun ezkeru puesto que tienes tanto deseo como eso
 zintzorik ba'dago iñun Si en alguna parte hay alguno fiel
 saku antzeko como si fueran sacos
 ulertu ezin zan eraz de manera que no se podía entender

AMAZAZPIGARREN IRAKURGAIA

Lectura 17.^a

ZERUTAR BAT (Un habitante del cielo)

Nik orain gomuta ez dodan etxaguntza batean bizi ei zan, bigarren ezkondata, emakume bat, burua utsik edo, beñipein, ondo beterik ez eukana, irakurleak igarriko daun lez.

Agertu zan bein, ate ondoan, eskeko bat, bere soiñeko zarrak danak apurtuta, alde guztietatik zulututa. Oifetakoak agoa zabalik barreka ta. Buruko txapela be koipez beterik ta erdi-erdian leio biribil bat: bertatik ule pillo bat agiri zan.

Bere arpegi, ule, bizar ta makillaraño be, danak ziran soiñeko, oiñetako ta txapelaren antzekoak. Arlote aundiagorik, amesetan be, iñork ez leuke sortuko irudimenean.

Arrituta, ikusi ebanean, itaundu eban* emakume arek:

—Ene! Nundik urten zara era orretan? Nundik zatoz?

—Zeutatik andrea —erantzun eban Arlote'k.

—Zeruetatik zatozala? Zeruetatik esan dozu?

—Bai, andrea, andixik nator.

—Aitaren eta semearen!... Ondiño alakorik! Orduan, ezagutu izango dozu Jon gurea, ez da?

Auxe zan bere lenengo senarraren izena.

Espetxetik etorren azeri zarrak laster igarri eban zelako txotxolea eukan aurrean, eta ba'da ez ba'da, jarraitu eban* onen oker aditzeari.

—Ezagutu ez ba! Bai, ta... adiskide aundiak gara.

—Ene ba! Ta, zelan dabil bera? Ondo bizi da?

—Gitxi gora-bera neu lez. An ez da beste bizikerarik. Danak arlote, danak zorritz, arkakusoz, soiñeko zarrez ta nekez beterik.

—Ai, ene Jaungoikoa! Jon koitadue! Nork uste izango eban olakorik? Biurtuko zara bertara barriro?

—Bai,aldi aundirik ez da igaroko ni ara joan baño len, uste dot beintzat.

—Orduan, eroan bear dozu* beretzat gauzatxuen batzuk, nire biotzeo Jon ain txarto ez bizitzeko.

—Bai, bai, pozik be. Atara, atara gauzak.

Atara ta emon eban* ba gizonari diruen batzuk, soiñeko barriak tolestuta maletatxo batean, eta ganera goraintzi aundi ta ugariak Jon koitadu arentzat.

Zerutarrak alde eginda gerotxuago, agertu zan nundik edo andik emakume aren bigarren senarra. Emazteak esan eban*:

—Ba-dakizu? Jon'en barriak gaur euki dot*.

—Arrañua! Nundik artu dozu*, ba?

—Oraintxe emen egon dan gizon bategandik; izpar txarrak ekarri dau.* Azaldu eban*, gero senarrari, emon ebalat* gizon orreri Jon'en zat esan diran gauzak.

Au entzun ta gero itaundu eban gizonak:

—Norantz artu dau izpardun orrek?

—Bide aretatik. Zer zoaz egiten?

—Ba... Jon'en barri jakin gura dot neuk be, ta joan bear dot izpardunagaz itz egiten.

Atara eban kortatik zalditxu polit bat, ganera igon, eta tximistea bai-zen arin aldendu zan.

Baña Zeuta'ko espetxetarrak arima zarra euki ta uste izan eban norbait urtengo zala bere atzean; ezkutatu eban maletatxua sasi batzuen artean eta jesarri zan bide zabaletik urteten zan bidezior baten asieran.

Zalduna eldu zanean, itaundu eban* arloteari:

—Adiskidea, ikusi dozu bide onetan, maleta bategaz gizon bat?

—Bai, bidezior onetatik artu dau baso erditik gorantz. Oin bizkorrak daroa* berak, eta bere billa ba'zoaz, arin ibilli bearko dozu.

Basoa ez zan zaldiz ibiltekoa, ta bere larriunean senarrak emon eban* besteari aberea esanaz:

—Mesedez, zaldi au eukiko dozu apur batean?

—Bai, zoaz ardura barik. Emen itxarongo zaitut.

Alde egin eban leloak. Atara eban arlotek maletea ta, zaldiari igonda, laster aldendu zan poz-pozik.

Besteak, ostera, bota bear eban gibela agotik mendi aretako bazter guztiak arakatu bearrez, batera ta bestera, atzera ta aurrera, gora ta bera. Azkenean, arnas-estuka, nekatuta, izerdituta, biurtu zan zaldiaren billa, ta arrizkoa lez geratu zan ez ebanean iñor ikusi.

Ulertu eban guztia, artu eban eroapena ta joan zan etxera lotsatuta.

Emazteak, eldu zanean:

—Ta, ikusi dozu?

—Bai.

—Eta zaldia, zer egin dozu beragaz?

—Gizon orreri emon dot* berak Jon'eri eroateko. Guk baño bear geiago izango dau Jon'ek.

—Ai, zu lako gizonik ez dago ludi guztian! Zorionekoa zugaz ezkondu nintzan ordua!

Iztegia - Vocabulario

aditzea el entender (de «aditu»)
alakorik! semejante caso!
aldendu alejarse
ardura cuidado, atención
arkakuso pulga
arkakusoz de pulgas
arrote zarrapastroso
arnas-estuka jadeando (respirando apuradamente)

arranua (interj.) demonio!
azeri zorro
bidezior sendero
bizikera modo de vivir
eroapen paciencia
eskeko mendigo
espetxe cárcel
etxagantza propiedad (casa)
eukan tenía (él)
gibel hígado
irakurle lector

izpar noticia
izpardun mensajero
lariune apuro
makilla palo
sasi zarza
tolestu plegar, doblar
tximista rayo, electricidad
zaldiz a caballo
zaldun caballero
zorri piojo
zorriz piojoso

jarraitu eban onen aditzeari Siguió el torcido entender de ésta
zer zoaz egiten? ¿qué vas a hacer? (¿qué vas haciendo?)

AMAZORTZIGARREN IRAKURGAIA

Lectura 18.^a

ATXURI'KO MIRARIA (El milagro de Achuri)

Emen edestuko doguna jazo zanetik ona, urte asko igaro dira.

Orduan Bilbo'k ogei milla inguru biztanle baño askoz geiago ez eban. Geroago Begoña'ri artuteko zatiak ez eukan* ondiño. Abando be, ondiño, erri banakoa zan. Beraz, Bilbo erri txikia zan, eta biztanle guztiak alkarren ezagunak ziran. Ez egoan orain dagon beste «guardia municipal»; naikoa ziran iru edo lau txinel erria zaintzeko, gabezko «sereno» kantari batzukaz.

Onelako erri batean adituten da errez egin al dala emen edestuko dogun barrabaskeria, erri guztia barre batean egun askotan euki ebana.

Bilbotar barregarri batzuk iragarri eben bertako izparringi batean, ez dakit nungo erritan, il zala atso aberats bat, eta milla ogerleko batzuk utzi ebala Bilbo'ko errenai banatuteko, atsoa be errena izan zalako ta Bilbo'n jaioa. Diru ori banatuko zan Atxuri'n, etxe bateko atarian, bertan aurkeztuko ziran erren bilbotarrai, onen egunetan eta onen ordutan.

Bilbo'ko txiro ta gosetien artean ikara aundia eragin eban iragark orrek, eta egun batzuetan ez zan izan beste izketa gairik auxe baño.

Eldu zan eguna. Atxuri'ko etxe aretan agertu zan, atarian, mai bat, bere ganean tint-ontzia ta ingiak; iru jesarleku; bazterrean zorro batzuk zerez edo arez biterik; eta iru edo lau gizon, piperra baño benagoak, alkarregaz izketa ixiltuan, atarian batera ta bestera ebiltzala eperdi ganean eskuak alkartuta.

Goiz-goizean asi ziran errenak agertzen kalean. Geienak etozan makulu bigaz ta anka bata dindilizka, baño bai ziran etozanak eperdi-ganean erdi tatarrez, ta burdixuetan etozanak be, iñork bultzakae roanda.

Danak arpegi zurbil eta aulagaz, edonor errukitzeko lez.

Iragarrita egoan ordurako, kale guztia aurkitzen zan errenez beterik. Balkoietan eta leiuetan egoan jendeak arrituta esaten eban:

—Nork uste izango eban Bilbo'n onenbeste erren egoala?

Atarian egozan gizon benak esan eben* kalekoei, dirua gertu bear ebela ta orregaitik apur batean atea itxiko ebela, ta asko berandutu barik, laster asiko zala diru banaketa.

Ixti eben atea, ta gerotxuago barriro zabaldu zanean, tximista baño ariñago, urten zan andik, zer uste dozue? Zezentxu bat!

Nork azaldu an izan zan zalaparta? Asi zan zezentxua topeka, au bota ta ori bota, ta... miñutu bat baño lenago, garbitu zan kalea, makulu eta burdixuaz beterik gelditu zala.

Miraria izan zan. Zezena agertu zanean erren guztiak osasunera etorri ziran.

Iztegia - Vocabulario

aul demacrado
aurkeztu presentar
balkoi balcón
banako propio
banatu repartir
barrabaskeri barrabasada
ben serio
biztanle habitante
burditxu carrito
bultzaka empujando
dindilizka colgando
edestu contar, relatar

eperdi culo
eragin causar, promover
erren cojo
errukitu conmovier
goseti hambriento
ingi papel
iragarki anuncio
iragarri anunciar
izketa conversación
izparringi periódico
jesarleku asiento
makal débil, flaco

mirari prodigio, milagro
makulu muleta
piper pimienta
tatarrez arrastrando
tint-ontzia tintero
topeka embistiendo
txinel guardia
txiro pobre
zalaparta alboroto
zezen toro
zorro saco
zurbil pálido

onen egunetan en tal día (en el día de este)

onen ordutan a tal hora

iñork bultzaka eroanda que alguien llevaba a empujones (llevados empujando alguien)

asiko zala empezaría (en este caso no significa «hubiera empezado»)

TXIMIST-ARGI BARRIA (La nueva luz eléctrica)

Emen irakurriko dozuena lengo urte batean Durango'n jazo zan.

Azoka eguna zan. Eguraldia illun-illun egoan. Emakumetxu bat sartu zan Artekale'ko saltoki batean, eta ikusiaz tximist-makatz, apur batean argiari begira-begira egon ta gero esan eban* etxeoandreari:

—Ene! Au da argi ederra! Egundo onelakorik ez dot ikusi!

—Ederra, ez da?

—Bai. Polita dago bere kristalezko ontzitzu orretan. Zenbat balio dau onelako batek?

—Bost errial.

—Bat erosiko neuke. Nun saltzen ete dira?

—Neuk daukat ementxe. Gura dozu bat ala?

—Bai, ipiñi niri bat. Sekulako ikarea artu bear dabe Kosanton gureak eta mutillak, gaur gabeen argi dotore au ipintean gure sukaldean.

Ipiñi eban argi-makatz polito-polito bere saskian eta agur esanaz joan zan, Ana Mari ona, lau urteko umeak baño gaiztotasun geiago ez eukan emakumetxua.

Urrengo azoka egunean, orra nun agertzen dan bera Artekale'ko denda atan, eta ba-diño* etxeoandreari:

—Lengo egunean eroan neban argi-ontzitzua ez zan ona, edo...

—Ez?

—Ni pozik eldu nintzan etxera, ta estu nengoan gaba noiz etorriko zan gure gizonak ikaratuta utzitzeko, ta, esakera dan lez «nire poza pozura» joan zan. Ipiñi neban argitxu au ta... len baizen illun. Iseka asko egin eben* gure gizonak, argizaia baño oberik ez dagola esanaz...

—Erreta egongo zan ba? Ekarri dozu bonbilla?

—Zera? Argi egitekoa? Bai, bai...

Saltoki-andreak artu ta ipiñi eban beste makatzaren lekuan, au kenda, eta ederto argi egin eban.

—Ikusten dozu, Ana Mari, zein polita?

—Aundia da ba!

—Zelan ipiñi zenduan ba?

—Nik ba... ortxe dagon lez, goiko gelako untze batetik abarka-korde-laz dingilizka...

Iztegia - Vocabulario

argi-ontzi lámpara
argizaia vela
atan en aquella
bonbil bombilla
dotore elegante
esakera dicho, refrán

etxeoandre ama de
casa
gaiztotasun malicia,
maldad
iseka burla
kordela cordel

kristalezko de cristal
makatz perucha
saski cesta
sekula jamás
sekulako como nunca
tximist-makatz bombilla

ZIÑALDARI ARTEZA (Testigo recto)

Udagoieneko arratsalde epel-epela da.

Baseri-etxe bateko atarte aurrean auzoko emakumeak batuta dagoz. Bata galtzeta egiñean, bestea baba urkultzen; au bere gizonaren prakai ipinki bat ezarten, ori galtza zarren batzuk konpontzen; beste bat etxe ondoko osintxuan tresnak garbitzen.

Danak daukie esku artean zeregiña, iñor ez dago alper, baña iñor be ez ixilik.

Ego-aizea dabil, eta oi dan lez, guztiz urduri dagoz emakumetuak, iñoiz baño barritsuak, beti barritsuak izan-arren.

Ez dakigu zergaitik, ez zelan, euren artean asarrea sortu da, ta alkarri zirikatzen asi dira, ta guztien aurrean iñun ezkututa diranak ataraten dabe.*

Lelokeri aundia diñozu! Danak zu lakoak garala usteko dozu. Ez asko zirikatu, asten ba'nazalako atarako dot* ezkutuan daukadan* trapuzar guztiak eta...

—Ni... ri? Geldi... geldi! Lotsa apurtxu bat eukiko ba'zendu, ondo ixilik egon bear zeunke.

—Ez zara ixilduko, ez. Zu beti izango zara betikoa. Zure ondoan ezin da iñor be bizi, gaizto ori.

—Ni gaiztoa?

—Gaiztoa bai, barriro be esango dot, zaralako. Gizona be jo egiten dozu ta...

—Aitaren!... Au da emakumearen lotsabakoa! Gizona joten dodala?...

—Bai, bai, joten dozu, egia da.

—Ez da. Ta laster guzurtatuko dot ori.

Jagiten da bizi-bizi, altzoan daukan guztia lurrera bota ta artzeko asti barik, eta inguruan olgetan dabillen mutiko bateri deituta...

—Mikeltxu, etorri ona, polit ori. Agindu bat egingo dozu* niri? Neuk saria, emongo dot* zuri. Joan etxe-osteko solora; antxe dabil gure Praisku lanean eta esan berari datorrela arin-arin ona, neuk esan dodala ta...

Lastertxu agertzen da Praisku etxe-alboko orma ganean eta ba'diño:

—Zer demoniño bear dozue?

—Ara Praisku, esan guri ementxe argi ta garbi. Nik iñoiz jo zaitut?

—Iñoiz bakarrik? Bein baño sarriago be, arraio orrek!

Iztegia - Vocabulario

altzo regazo
arraio orrek irayos!
(exclamación)
artex recto
baba haba
ego-aize viento sur
epel templado, tibio
estanda explosión
ezarri poner, aplicar

galtza media
galtzeta calceta
geldi-geldi poco a poco
guzurtatu desmentir
ipinki petacho, remien-
do
konpondu componer,
remendar
lelokeri tontería

lotsabako sin vergüen-
za
oi costumbre
olgetan jugando
trapuzar trapos viejos
urduri impaciente
urkultu desgranar
